




Luis Garde poesia idazlearekin solasean

03

Donezteben bizi den iruñear honek uda hasieran bigarren lana kaleratu zuen: *Haize hegoaren aroak*. Laster hirugarrena argitaratuko du: *Urtzailearen beharra*.



Mikel Olazabalek debuta egin Asperekin

38

Aresoko aurrelari gazteak abuztuaren 13an egin zuen debuta Leitzan. Lesio bat dela eta, 17 hilabetez geldirik egon ondotik, sa-soian dago berriz ere Olazabal.

2007ko irailaren 6a • XXVII. urtea
www.ttipi.net



BELATE ETA ALMANDOZKO TUNELAK

14

Ireki zirenetik 10 urte pasatu gabe direnean 7 aldiz itxi dira

artesia

BULEGO ALTZARI ETA HORNIDURAK
MOBILIARIO Y SUMINISTROS DE OFICINA

| | |
|----------------------|----------------------|
| grapagailuak | agendak |
| azpi-karpetak | paper-zorroak |
| koadernoak | errotulagailuak |
| papera | atrilak |
| kalkulagailuak | fax zerbitzuak |
| azpilak | plastifikazioak |
| txartel-zorroak | idaztegiak |
| fotokopiak | maletinak |
| arbelak | etiketak |
| plastifikagailuak | kartulinak |
| bulego aulkiak | cd-zorroak |
| gutunazalak | koadernagailuak |
| gutun-balantzak | boligrafoak |
| inprenta lanak | errotulagailuak |
| tinta-kartutxoak | ikaspen lanparak |
| ofimatika osagarriak | altzari lagungarriak |
| etiketagailuak | artxibo soluzioak |

asteleheneretik larunbatera

9:00 - 13:00 16:30 - 20:00

jaime urrutia 57 | elizondo | 948 580 639

LARUNBAT
arratsaldetan
EREZABALIK

DATUAK...

- 2004an plazaratu zuen Luis Gardek lehen poema-liburua: *Oihan nabarra*, eta Euskaltzaindiaren eta BBKren Felipe Arrese Beitia saria lortu. Uda hasieran bigarrena kaleratu du: *Haize hegoaren aroak*.
- Bigarreanean euskaldunak tartean diren gerren poemak bildu ditu, karlistadenak, 1936koak, egungo gatazkaren ingurukoak, etorkizunekoak...
- Donezteben bizi den iruñear honek hirugarrena ere argitaratu du laster: *Urtzailearen beharra*.

Luis GARDE *Poesia idazlea*

ARGAZKIA: GURUTZE PIKABEA

«Euskaldunon historian errepikatzen diren aroak sinbolizatu nahi izan ditut»

Gurutze PIKABEA

Zure bigarren liburua da *Haize hegoaren aroak*. Zer alde dago zure lehendabizikoa izan zen *Oihan nabarra* liburutik?

Orain irakurrita lehenengo liburuko poemak hagitz xaloak direla iruditzen zait, zuzenak. Horrek ere bere xarma du baina hau bertzelakoa da. Orduan nire ikuspuntutik kontatu nuen zuzen-zuzen dena, nire bizipenak eta oroitzapenak hartu nituen lehengaitzat. Bigarren honetan, berriz, irakurri daitekeenaren eta nire *n*/biografikoaren arteko distantzia hagitzez handiagoa da. Poesian idazten denak ez du nahitaez idazlearen uste edo iritziak izan beharrik.

Oroimen historikoan osatu gabeko puzzle bat dagoela diozu liburuan. Azaldu...

Euskaldunon oroimen historikoaz ari naiz. Orain gai hori puri-purian dago, eskuratzen saiatzen ari da, eta gai ona iruditu zitzaidan nire hausnarkeak egiteko. Alde horretatik, gaurkotasuna du liburua. Osatu gabeko puzzle bat dela erratean, ez direla poema solteak adierazi nahi dut, poe-

«Euskal Herriko egoera sorgin gurpil bat da, eta badirudi ez garela gai hortik ateratzeko. Izenburuan ere hortik dator, haizearen zurrunbiloa adieraziz»

ma bakarra balitz bezala islatu nahi izan dut, poema luze bat. Poema bakoitza osotasun baten barnean pieza bat da, baina liburuan gai bakarra jorratzen da, eta hori da oroimenarena, gerrena...

Gerra da liburuan bueltaka darabilzun gaia...

Poema batzuen eskenatokia kokatu daiteke historian, baina bertzela, agertzen diren gerrak karlista garaikoak izaten ahal dira, edo Nafarroaren independentziaren gerrarenak, edo oraingo gatazkaren ingurukoak. Finen, erraten dudana da gure historia errepikakorra dela, gauza aunitz errepikatzen direla dirudi, gerra aunitz... Eta ez kanpotik etorritakoen kontra bakarrik, gure artean ere beti izan dira gerrak. Eta oraingo gatazka ere gerra horien oihartzun bat dela erranen nuke, gerra zibil ttiki bat no-

labait errateko. Liburuan gure historian errepikatzen diren aroak sinbolizatu nahi izan ditut.

«Lege zaharrak defendatzen, eta hondarrean etxaldea sutan». Zer dago horren gibelean?

Gerra horietan galtzen garen bitartean, gehien maite dugunari kalte egiten diogula. Gurea eta gure inguru abandonatzen dugu, batzuetan kausa arraro batzuetan sartzeagatik edo guztiz gureak ez diren kausetan sartzeagatik. Adibidez, karlistadan gurea ez den errege baten alde... Gurea defendatu beharrean berteen interesak defendatzen genituen.

Egungo egoera liburua idazteko baliagarria egin zaizu?

Bai, hausnartzerakoan eta pentsatzerakoan aunitz lagundu dit. Azken batean, guztia *circulo vicioso* edo "sorgin gurpil" bat dela erakutsi dit, eta gurpil horretatik ateratzeko gai ez garela. Horretatik dator izenburua ere, haizearen zurrunbiloarena adierazi nahi izan dut. *Bere historia ezagutzen ez duen herri bat errepikatzen kondenatua dagoen* esaera zahar bat dago, eta halaxe da.



ARGAZKIA: G. PIKABEA

Berako Garbi Goxo garbategian energia gehiena eguzki panel termikoen bidez jasotzen dute.

ERAIKUNTZAKO AZKEN ARAU TEKNIKOAREN ARABERA

Etxe berrietan eguzki panel termikoak paratzea nahitaezkoa da

Azken urteotan maiz aditzen dugu energia berriztagarriari buruz solasean. Eta horien artean, eguzkitik heldu den energiari buruz. Eguzkitik heldu den energia ustiatzeko bide aunitz dago. Erraten denez, hurrengo 6.000 milioi urterako berriztagarri dagoen energia-iturria da eguzkia. Baina gure inguruan gero eta gehiago ikusten ditugunak eguzki-panelak dira. Azken onartutako Eraikuntzako Arau Teknikoak ere «egiten diren etxe berrietan panel termikoak paratzea nahitaezkoa dela» dio, ur beroaren guttieneko portzentaia bat eguzki-energia bidez lortzeko. Gainontzeko etxeetan, ordea, oraindik %50eko laguntza dago. Bertze sistema batzuek eragiten duten berotegi efektua guttitzen du eta hagitzez ere CO₂ guttiago isuri, ingurumenaren mesederako. Orain hilabete batzuk, Alemanian egindako ikerketa baten arabera, 2050erako munduak behar duen argindarraren %65ak haize eta eguzki bidez lortutakoa izan beharko luke.

Gurutze PIKABEA

Eguzki-panelak bi motatakoak dira: termikoak eta fotovoltaikoak. Mikel Garro eguzki panelak paratzen ibiltzen den Lesakako Hirukide enpresako iturginak adierazi digunez, «*termikoen kasuan, eguzkirik ez badugu ez dugu emaitzik, fotovoltaikoen kasuan, ordea, argia izanda funtzionatzen dute*».

Panel fotovoltaikoak hainbat zelula fotovoltaikoz osatuak daude. Zelula horiek material erdieroalea dute eta eguzki-erradioak eragiten dionean hainbat elektroiz askatu egiten dira. Elektroiz horiek metalezko hari batetik bideratuz korrante elektrikoa sortzen da. Horrela sortzen den korrantea zuzena da, eta beraz, bihurtzaile erabiltzen da korrante alterno bihurtzeko.



Hiru laguneko familia batean, adibidez, nahikoa energia sortzen du bi metro koadroko panel termiko batek.

ko. Termikoen kasuan, berriz, kolektore izena dute panelek eta beirazko estalkia dute, berotegi-efektua sortzeko. Horren azpian xafla bat izaten dute, eguzki-energia xurgatzeko, eta xaflaren azpian, urez betetako hodiak. Plaka termikoek eguzkiaren energia hartzen dute eta plakaren azpiko hodian joan-etorrian dabilen ura berotu egiten da. Hodian ura bertzerik ez badago, ur hori zuzenean erabili edo pilatu egin daiteke. Baina eguzki-instalazio termikoen bidez berotutako ura hozte-sistemarako ere erabilgarria da. Horrelako sistemak instalazio handietan erabiltzen dira, batez ere. Gisa berean, bero handia egiten duenerako bentiladore edo haizagailu bat aholkatzen da, gehiegizko tenperatura ekiditeko. Eguzki panel termikoak errentagarriagoak dira, izan ere etekin handiagoa atera daiteke, eta bertalde, material merkeagoz osatuta daude, panel fotovoltaikoak egiteko erabiltzen den teknologiarekin konparatuz.

NEURRIAN ALDEA

Neurrian ere badago aldea batetik bertera. Hirukideren kasuan, «*paratzen ditugun panelak 2x1 metrokoak izaten dira*», azaldu digu Mikelek. Horretarako, kontsumoaren arabera neurketa bat egiten dute eta horrekin zenbat metro koadroko azalera behar den kalkulatzeko. «*Baina hiru lagun bizi diren etxe batean bi metro koadroko panel termikoa eta 160 litroko piltzaille bat nahikoa da*». Badira, ordea, aunitzez handiagoak ere, «*erabilpenaren arabera*». Berako Garbi Goxo garbitegian, adibidez —ezkerreko argazkian—, 18 panel termiko paratu dituzte, eta azaldu digutenez, hagitx gustura daude zerbitzuarekin. Aipatu, gero eta panel gehiago paratzen ari

EGUZKI BARATZEAK NAFARROAN



Nafarroan dago munduko eguzki baratzerik emankorrena, Erriberan.

Eguzki baratzeen negozioa

‘Eguzki-baratze’ deituak ere aunitz ugari dira azken aldian. Eguzki baratzeak eguzki plaka aunitzez osatutako landa eremuak dira, eta familia aunitzen energia iturri izaten dira.

Hain zuzen, Nafarroan kokatua dago munduko eguzki baratze emankorrena, Erriberan, Milagro herriaren ondoan. Acciona Solar enpresak martxoan inauguratu zuen Monte Alto izeneko azpiegitura fotovoltaikoa eta urtean 14 kilowatt orduko produkzioa du. 150 plaka finko ditu eta 5.000 familiek kontsumituko dute energia bertatik. Aipatzekoa da, jabeakidetzak kudeaturiko munduko azpiegitura handiena dela: 9,55 megawatt banatuta dituzte 753 jaberaren artean. Jabe bakoitzak 65 milioi euroko inbertsioa egin du. Euskal Herrian paratu ziren lehendabiziko eguzki baratzeak Nafarroan eraiki ziren. Duela bortz bat ur-

te izan zen hori, 2002an. Geroztik hainbat paratu dira. Gaur egun, eguzki baratzeen negozioan parte hartzen dutenek jabe pribatuak dira, bazkide-tza erosi, eta trukean enpresak kopuru jakin bat jasotzen du. Acciona Solar enpresak, adibidez, hainbat paratu ditu dagoeneko Nafarroan eta lehenengoa eraiki zuenetik 2.000 lagun eskutik 177 milioi euro jaso ditu paneletan inbertitzeko. Hala ere, urteen joanean egindako inbertsioa amortizatuko lukete bazkideek. Bazter guztietan energiaren kontsumoa goiti doa, Hego Euskal Herrian ere bai. Baina hainbat adituren arabera, Hego Euskal Herrian gaur egun dagoen argindarraren eskaera energia berriztagarrekin soilik bete daiteke: eguzki energiarekin, haize energiarekin edota olatuekin. Gure esku ere badago, beraz.

dirrela landa-guneetan eta baserri zein bordatan, ura ponpatzeko eta elektrizitatea sortzeko. Otsailean Erriberan inauguratu zuten landa-fotovoltaikoak, adibidez, 150 plaka finko ditu.

DOHAINIK DEN ENERGIA-ITURRIA

Eguzki-energiak hanbait abantaila ditu. Dohainik den energia-iturri izateaz gain, kalitate oneko energia da, eta ingurumenari begira aunitzez garbigoa. Gutti goitibeheiti 20 urte inguru irauteko prestatuak daude. «*Hori bai, errendimendua hobetzeko, kasu pixka bat egitea komeni da, garbitzea, alegia*». Garesti samarra izan daite-

ke, baina ingurumenari kontuan hartuz ez da horrela. Mikelek azaldu digunez, «*panel bakoitza 600 euroren inguruan ibiltzen da normalean*». Baina mota eta etxe aunitz daude, eta batetik bertera prezioak gorabeherak omen ditu. «*Kalitatearen eta panelaren azaleraren arabera merkeagoa edo garestiagoa izanen da*». Gaineratu digunez, «*posible den kasuetan bertelako sistema lagungarriren bat behar da, eguzki-irradiazioa nahikoa ez denean ur beroa edukitzeko*». Halere, kontsumoan kontuan hartzeko bertze aholku bat eman ere digu: «*etxe-ko aislamendua zaintzea*», alegia.

Lege Gordailua: NA-1324/85
ISSN: 1578-4673
Frankeo Itundua: 34/79
TIRADA: 6.000

ttipi-ttapa aldizkaria

Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
www.ttipi.net
info@ttipi.net

Argitaratzailea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Gurutze Pikabea.

Berriemaileak: Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Joseba Urkiola, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Aitor Ollo eta Fanny Bonnemaison, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olgarai, Nerea Mitxelorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Rakel Amigo, Iratxe Kontsumitzaileen Elkarte...

Imprimategia: Gertu.

Erakunde laguntzaileak: Etxalar, Leitzeta, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarte, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

| | |
|--|-------|
| Hego Euskal Herria | 32 € |
| Espainia | 32 € |
| Sara (edantegia-okindegia) | 40 € |
| Ipar Euskal Herria | 52 € |
| Europa | 52 € |
| Amerika | 110 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitzeta | 26 € |



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko
Jaurilaritzako Kultura Sailaren
laguntza jaso du

• IRAKURLEAK MINTZO •

Elizondoko

Santiotan, plazako

mutil-dantzen

ikusle batek

Elizondoko Santio Bestak dira eta arratseko 10ak aldera, ohi bezala, Foruen Plazan mutil-dantzak hastera doa-zi. Hirugarren dantzan neska eta mutilak plazara sartzen (ateratzen) dira eta soinulariak bat-batean ixildu dira. Zer gertatzen ari da? Iduri duenez, neskak dantzan ari direlako soinulariak ixildu dira, baino, aitzineko dantzan ere zenbait neska dantzan ari-tu dira deusik gertatu gabe. Zergatik? Eta horrela, soinulariek kalejira bat joaz mutil-dantzei amaiera eman diote.

Hurrengo egunean, 26an, bigarren mutil-dantzatik aitzinera, plazako bazter batean neskak osaturiko inguru tiki bat ageri da gizonkien ingurutik hurbil. Pixkanaka inguru nagusitik zenbait mutil eta bertze aldetik neska gehiago inguru ttikian sartu dira. Horrela, dantzatik dantzara, inguru ttikia haundituz doaie eta inguru nagusia berriz, ttikituz. Azkeneko dantzan ohar-tu gara arestiko inguru ttikian bertze inguruan baino dantzari gehiagok parte hartu izan dutela. Gaur, mutil-dantzak ikusteko aukera izan dugu, baina bi borobil edo ingurutan, ohi ez bezala.

Ortzileria da, 27a, Elizondoko soinulariekin ez dira mutil-dantzarik izan, zortziko bat izan ezik. Zertaz? Mutil-dantzen hasmentan, neskak sartu bezain laister, zortzikoak jotzera pasatu direlako. Gaur zortziko maratonia, mistoa, ikusi dugu eta porrusal-darrik gabeko fandangoa gainera, agian, soinularie joaldiaren tenorea pasatu zaielako. Berriak akitu ahala, baztertuak sentitu diren dantzari batzuk bertze ziz-tulari bat ekarrarazi dute eta orain bai, nahi izan duen guztiak dantza-tzeko aukera iduki du. Gaur, mutil-dantzak, inguru misto eder batean soilik agerian dira.

Larunbata 28a, bes-tetako azken eguna dugu. Zer gertatuko ote da gaur plazan?

Dantzariak bigarren dantzan ari eta, mutil-dantza akitzeaz dagoela, zenbait gizonak, bazter batean dantzan -inguru osatu gabe- hasi diren neskak ikusirik, dantza geldiarazi dute; soinulariak jotzen jarraiki eta neskak dantzan ere, bat-batean ixildu dira soinulariak. Tentsioa nabarmena plazan! plazako alde batean bazter-tzaileak bildu, bertze alde batean baztertuak bildu... eta bertze mutil dantza bat hasi da. Bere-hala inguru bat osatu da, gizonki hutsez betea, eta bazterrean neska batzuk dantzan hasi dire. Gizonki batzuk dantza utzi dute, bertze batzuk ez, eta plaza bazterrean

neska batzuk dantzan ere jarraiki dira. Egoera huntan soinulariek joaldia moztu dute. Ikus-entzule eta dantzari aunitzen harridura nabarmen ageri da plazan eta azken hauetarik bi lagun, soinulariengana hurbildu dira dantza bat jo de-zaten, bainan soinulariak kasurik ez, ez die-te, ez da, aurpegira ere begiratu. Ni ere harritu naiz. Bailarako herriko plaza gehienetan ia-ia plaza guzietan, neska-mutilak elkarrekin mutil-dantzan eta bertze dan-tzetan ikusiak izan dira inolako arazorik gertatu gabe, baita aurtengo Baztandarren Biltzarra bestan ere.

Eta hau izan da Elizondoko Bestetan he-tetako plazara mutil-dantzak ikustera hurbildu dena eta ikus-entzun duenaren errana.

Zer gertatzen da Elizondoko plazan?

Baztandar bat

Goizuetako koruri

Goizuetako korua hasiz geroztik, aiherrak nengon koruko guzik zoriontzeko eta esateko zenbat alaitzen ditzuzuten herriko hainbat ekitaldi eta meza, izan ere, zuek kantatzen duzute-netik atsegiñagok baitia. Biño abuztun 12n, umen jai egunen egin zenuten emanaldik ez doizenik; beno bai, «Aurora». Garai baten atetzen omen zian aurten

atere zuten bezala (egia esan garai baten bezela gaur egun deus ere ez da biño). Goizeko 7:30ean hasi eta eguerdiko 2k alde arte, hor egon zintan 47 bat lagun, txuri-gorritz jantzita, Don Bixentek esaten zun bezela, gizon eta emakume, gazte eta sa-soi hoberenan zautenak. Horko kanta, txistu, saxofoi, trompeta, kordio-na, kitar, tamboreta irrintzi! A ze umorea! Eta gu atzetik emozionatuta noski; biño baita bal-koiatan eta leihotan zaudenak ere e! Hori da hori meritua zuena! Bukatze-ko, hasieran esan bezela zorionak Goizuetako koruri eta zueri erakusten dizutenari. Aupa, aupa eta aupa Goizuetako korua! Ni eta ni bezela pentsatzen du-tenan partez.

Mari Karmen

Seguro lortuko

dugula!

Ekitaldi politiko batean parte hartzeagatik epailearen aurrera joa-tea egokitu zaigun honetan, begirada atzera bota eta egun haietatik gaur arterainoko gertaerak gogoratu ditut bata bertzearen ondotik. Idaz-tea, atrebentzia bertze-rik ez da izan.

Azken hilabete haue-tan, Ezker Abertzalea, gure herriak pairatzen duen gatazka politikoa-ren koropiloak askatu

• IRAKURLEAK MINTZO •

nahian ibili da. Maiatzaren 20ko aste horretan bertan, gatazka politikoa behin betirako gainditzen duen proposamena jarri zuten mahai gainean Estatu espainoleko ordezkariak. Espainiako gobernuak ezezik, euskal alderdi aunitzek muzin egin zioten proposamenari eta bidenabar jendarteari proposamenaren garrantzia ezkutatu.

Erantzuna, garbia: Hautets zerrenda kopuru amaigabea baliogabetu eta Euskal Herria zigortzen jarraitzeko epai berria kaleratu zuen PSOEek zuzentzen duen gobernuak. Dударik gabe, Euskal Herriaren interes nazional zein sozialak zigortzeko neurriak eraginkorrena; Ezker Abertzalearen aurkako jazarpene judizial eta polizialaren kapitulu berri bat hain xuxen.

Momentuaren garrantziaz jabeturik, tresna errepresibo guztiak erabili zituzten helburu bakarra-

rekin: Ezker Abertzalea jipoitzen jarraitu eta instituzio garrantzitsu aunitzetatik kaleratu, horrela Euskal Herriaren eta bertako biztanleen interesak neutralizatu. Tranpa egin zuten bai; putxerazoa!!

Urte luze hauetan gure herria zapalduta mantentzeko, bertako laguntzaile eta kolaborazionistak behar izan dituzte. Laguntzaile horiei esker lortu dute oraingoan ere ezker abertzalea udaletatik kanporatzea. Laguntzaile hauek, duela lau urte bezala mota guztietako airtzakiak jartzen dabilta beraien koldarkeria ezkutatzeko. Ez al dira ohartzen bada, ezinezkoa dela herria behar bezala gobernatzea herriak aukeratutakoak kanpoan utzita? Portaera hauek ikusita ez nau gehiegi harritu Lesakako bi zinegotzi epaile batek zigortzeko arriskupean daudenean Lesakako udalak elkartzun minimo baterako kei-

nurik ez egitea. Ilegalak eta kutsatuak gaudelako ote? Edo eta, publikoki lapur batzuk direla diogulako?

Herri honetako historiaren irakaspenek ongi argitzen dute bidea ordea. Bertze hainbat eta hainbatetan bezala ezin izan baitute beren helburuak erdietsi. Ezker Abertzaleak hauteskundeetan lortutako emaitzak ez dute dudarako tarterik uzten. Jendartearen zati garrantzitsu batek, Euskal Herriaren askapen nazional zein sozialaren proiektuarekin bat egiten jarraitzen du. Euskal Herriarren hitza errespetatzeak ekarriko du bakea eta jendartearen gehien goa irtenbide elkarrizketatu eta demokratikoaren alde agertzen da. Bide horretan doan proposamena ere mahai gainean dago. Inoiz baino hurbilago gaude beraz. Animo eta segi dezagun lanean! Lortuko dugu eta!!

Bere herriak bizi zuen zapalkuntza dela eta, duintasunez beterik, bere buruaz bertze egin zuen Xirinacs Kataluniarraren agurra, nire eginen dut gaurkoan «*nazio esklabua, norbanako esklabua bezala, lotsagarritzeko motiboa da, bai gizartearentzat eta bai unibertsoarentzat*».

Iban Maia Ormazabal
Ezker Abertzalearen
zinegotzia Lesakan

Arantzako Gazte Asanbladaren oharra

Abuztuaren 25ean, larunbata gauetz Arantzako plazan egindako gaupasaren inguruan hiru hitz:

Bertze urte batez, gus-to haundiz, besta polita aitzinera eramatea posi-

ble egin zenuten guziei eskerrak aunitz: herritarrei, Udalarari, musika taldeei eta bestara besta gogoz ongi pasatzera etorri zineten guziei.

Bertzalde, erran gabe ezin utzi, gure helburuetatik hagitz urruti, Arantzako herriak hartu zuen itxura penagarria iruditzen zaigula. Landare eta lur puskek karrketan barna, frontoiko aldageletako atek hautsiak, kotxeetako atek izorratuak, sarrrerako lorontziak harrika botatuak...

Halako indar eta abildadearen jabe sentitzen zaretzen guziei erran, zuen gogo horiek zerbait eman korrean erabil ditzazuela. Guk gazte indarra bultzatu nahi dugu, gu gione horretan sartuz, baina saia gaitezen indar horrekin herri hau altxatzen, eta ez, daukagun tiki hori hondatzen.

Arantzako
Gazte Asanblada

LANTEGIAK

Tubos Reunidosek eta Condesak bat egin, eta multinazionala sortu dute

2009rako 10 milioi euro aurreztuko dituztela adierazi dute

ttipi-ttapa

Uda hasieran sinatu zuten Arabako Tubos Reunidos eta Condesa enpresak bateratzeko akordioa, eta horren bidetz, altzairuzko hodiak egiten dituen Europako bigarren multinazionala sortuko dute. Iragarri zuten, talde berriak aurten 1.625 milioi euroko salmentak izanen ditu, 4.200 langile, 18 lantegi, eta 145 milioi euroko etekin garbiak espero dituztela ere aipatu zuten. Hain zuzen, 4.200 langile horien artean daude Zalaingo tubo lantegiko 330 langileak ere. Akordio berriak lantegian zein neurritan eraginen duen ez badakite ere, lan hitzarmena negoziatzeko garaian harrapatu dituela gogoratu zuen akordioa sinatu eta bihamunean Fermin Altzugaraik, Zalaingo langile batzordeko lehendakariak. 2006az geroztik negoziatzen ari dira bi aldeak, baina oraindik ez dute adostasunik lortu.



Condesa enpresak Zalaingen duen lantegia.

Gaineratu zuenez, «2000tik 2007ra bitartean 200.000 tonatik 70.000era jaitsi da Arcelorren produkzioa».

Hemendik aitzinera, enpresak Tubos Reunidos izena hartuko du, eta trukean Condesak talde berriko akzioen %36,25 bere eskuetan izanen du, baita kopuru hori %40,1era haunditzeko eskubidea ere. Gisa berean, Condesak Tubacexen zuen zatia,

%18 inguru, eratu berri den multinazionalaren esku geldituko da.

Arcelor Mittaleko Enpresa Batzordeko ordezkariak izendatuak

Bertzalde, Arcelor Mittalek Europako Enpresa Batzorde berriko kideak izendatu ditu, hilaletetako negoziazioen ondotik uztailaren 9an egin zuten inaugu-

razio ekitaldia Luxemburgon. Langileen aldetik 54 ordezkari izanen ditu eta horrez gain, Batzorde Mugatu bat ere eratu dute, Europako Enpresa Batzorde berri horren ardurak hartuko dituen. Orain ale batzuk aipatu bezala, Aurelio Gutierrez (ELA) izendatu dute Enpresa Batzordeko eta Batzorde Mugatuan Espainia ordezkatzeko duten bartz delegatutik bat.

FLASH

'Mugarik gabe' etorkinen topaketa Bortzirietan

Aunitz dira gure eskualean dauden etorkinak, gero eta gehiago. Horregatik, etorkinak gizarteratzeko helburuarekin bertze egitasmo berri bat antolatu dute Bortzirietako Gizarte Zerbitzuak eta Euskara Mankomunitateak: *Mugarik gabe* etorkinen topaketa. Horretarako, egitarau zabala prestatu dute. Hori irailaren 22tik aitzinera izanen da eta hurrengo alean emanen dizkizuegu horren inguruko xehetasun guztiak. Dena den, 22an hasiko den eta asteburuetan jokatuko den futbito txapelketan aritzeko aitzinetik eman beharko da izena Berako kiroldegian, irailaren 10etik 14ra, pertsonako 3 euro ordainduz. Finala urriaren 7an jokatuko da. Informazio gehiago 948 635036 telefonoan.

Eskualdeko zortzi adinekoen elkartek Gobernuaren dirulaguntza jasoko dute

Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak 1,1 milioi euroko dirulaguntza banatuko du Nafarroako 189 adinekoen eta gizarte-bolondresen elkartetan. Horietatik zortzi gure ingurukoak dira: **Arantzako Zahar Txoko**, **Etzalarko Larraburua**, **Goi-zuetako A.J.**, **Igantziako Baratzondo Zahar Etxea**, **Leitzako Jubilatuen Elkarte**, **Lesakako San Fermin Elkarte**, eta **Doneztebeko Arkupeak eta Doneztebe Malerreka** elkarteak.

m bentamiguel
denda, jatetxea eta ostaldea

Ongi zaindutako sukaldaritza
Menuak aukeran

Tabakoa
Likorrak
Janaridenda
Urdalategia

Ibardingo Lepoa - ☎ 948 631 209

ERREKALDE
PLATER KONTRAKTUAZ
PARTIDAK
ONGI PASA BESTAK!

TFABA: 948 630 259 6284

carrho
gintzologia teknologia

gintza estazioa 25 baxo
30700 berri (guzuz) www.carrho.net

BERA

Munduko Kenpo-Kai Txapelketan emaitza bikainak eskuratu dituzte herritarrek

Beratik zazpi lagun joan ziren Japonian jokaturako txapelketara

Amaia eta Ainhoa

Japoniako Hamamtsu hirian egin zen abuztuaren 5ean Munduko Kenpo-Kai Txapelketa. Toki berean, abuztuaren 4an, gerriko beltza lortzeko azterketak egin ziren. Nafarroako selekzioarekin bederatzi lagunek parte hartu zuten: Iban Telletxea, Alexis Villanueva, Rosa Pizzio, Jasone Iriarte, Gloria eta Laura Sanchez eta Julen Velez beratarrek, Odei Hernando etxalartarrak eta Rakel Ordoki doneztebarrak. Bi ekitaldietan parte hartu zuten eta emaitza bikainak lortu ere. Kenpo-kaiko gerriko beltza lortzeko azterketa Iban Telletxea, Jasone Iriarte eta Rakel Ordokik gainditu zuten. Azterketako frogen artean, bertzeak bertze, taula eta harriak puskatu eta sei kata ezberdin egin behar izan zituzten. Munduko txapelketan, aldiz, konbatean (neskak nesken aurka eta mutilak mutilen aurka) eta banaka borrokatu behar izan zuten parte hartzaileek. Proba indibidualen bikoteka borrokaldiak egiten dira eta galtzen duena kanporatzen dute. Proba honetan, kimuen



ARTXIBOA

Nafarroako Selektzioa Munduko Txapelketan. Ezkerretik eskuinera: Jorge Velez, Jasone Iriarte, Gloria Sanchez, Rosa Pizzio, Laura Sanchez, Julen Velez, Odei Hernando, Rakel Ordoki, Iban Telletxea eta Angel Sanchez.

mailan, Laura Sanchezek urrezko domina ekarri zuen eta bere ahizpa bikiak, Gloriak, brontzezkoa. Emakumezkoetan helduen mailan, Jasone Iriarte laugarren gelditu zen.

Aipatzekoa da Rakel Ordoki, Alexis Villanueva eta Arthur Rubaska poloniarrek Nazioarteko Selektzio bat ere osatu zutela, eta bigarren postua lortu zutela.

VIII. Ertz jaialdia

Irailaren 15etik 20ra VIII. Ertz bertze musiken jaialdia egingen da

Donostiako Artelekun eta Berako Kultur Etxean. Irailaren 15ean Beran Edorta Izarzuaga, Knell, Alex Mendizabal, Orthodox, Bruce McClure eta Orbes izanen dira eta irailaren 16an Alex Mendizabal, Marcello Liberatto, Marco Leie eta Pole Pole. Donostian, aldiz, irailaren 18tik 20ra Bruce McClurek Ertz Workshopa eskainiko du. Irailaren 20ean hitzordua Koldo Mitxelena izanen da. Proposamen berezi eta ez ohikoak ikusteko sekulako aukera.

XXVI. Luis Mari Apeztegia Memoriala

Abuztuko azken asteburuan ospatu ziren Agerrako bestak eta egitarauaren barnean, urtero bezala, Luis Mari Apeztegia Memoriala egin zen. 26. edizioan Rafa Maritxalarrek lortu zuen lehen postua 5.800 metroak 18 minutu eta 32 segundotan eginez. Maritxalarrek ez zuen duela bi urte berak egindako errekorra hobetzerik lortu (17:20). Aurten lasterketa antolatzen duen elkarteko ki-

de ziren Loro Pikabea eta Xabier Zubietaren oroimenez, Loro-Zubi Saria ere lehiatu zen. Kasu honetan, trofeoa Patxi Pikabearentzat izan zen.

Hona hemen XXVI. Luis Mari Apeztegia Memorialean lortutako lehen postuak: 6 urte arteko mutiletan lehena Aimar Jabalera izan zen eta nesketan Estitxu Ezepeleta. 9 urte bitartekoetan Gaizka Lopez eta Olatz Mitxelena, 13 urte bitartekoetan Beñat Mitxelena eta Ane Eltzaurdia, 18 urte bitartekoetan Gorka Tolosa eta Naiara Trigueros, Seniorretan Rafa Maritxalar eta Cristina Arbues, eta beteranoetan Juan Karlos Korta eta Marisol Martinez.

Kiroldegian izena emateko epea zabalik

Toki Ona kiroldegiko denboraldia urrian hasiko den arren, izen emateko epea laster zabalduko da. Kiroldegiko ikastaroetan parte hartu nahi duenak irailaren 17tik 21ra bitartean eman beharko du izena kiroldegian bertan edo bertela, 948 630215 telefonora deituz.

ANSONEA
Ostatua-Jaletxea
Eguneroko menua eta
antzerkitan menu bereziak
Terraza estalia eta Ziberka
Fotzen Plaza 1 - 948 631 155 - BERA

ZUBIONDO
Jaltetxea
agardotegia Jaltetxea
Alasta karrika
Tel. 948 625 472
BERA NAFARROA

Xirail
Alkate 1 - BERA
Telefonu 948 631 400

LESAKA

Bittiriko bestak aste hondar honetan

Ortziralean Egurre eta Kanka taldeen kontzertuak

Aitor AROTZENA

Aste hondar honetan, irailaren 7tik 9ra, ospatuko dira Bittiriko bestak. Ortziralean, 20:00etan patata tortilla txapelketa eta ordubete beranduago, txupinazoa da. 21:30ean Txooxt! berendu afaria izanen da eta 23:00etan rock kontzertua Egurre eta Kankarekin.

Larunbatean, 10:00etan txistulariek diana eskainiko dute. 12:00etan herri kirolak izanen dira, Begibana bigarren txapelketa, hain zuzen. Nesken arteko froga honetan Beti Gazteko neskekin batera, Sakana, Oartzun eta Bizkaiaokak arituko dira. 14:30ean auzo bazkaria Jon Maia, Mañukorta eta Manolo Arozena bertsolariekin. Iñigo DJ musika jartzailak ere giroa alaituko du. 19:00etan berbena.

Igandean, 11:00etan haur jokoak egingen dira Eltzeta plazan. 17:30ean ipuin kontalaria arituko da Bittiriako plazan eta 18:30ean trikitixa jaialdia izanen da.

Traba arkitektonikoak kentzeko dirulaguntza

Nafarroako Gobernuo Ongizate Departamentuak dirulaguntza eman dio Udalari herriko traba arkitektonikoak kentzeko. Zehazki, 43.696 euroko dirulaguntza eman zaio, onartutako aurrekontuaren (54.620 euro) %80a. Egin beharreko lanen artean, espaloiak behar, arrapalak egin eta Biurrana erreka gaineko bi pasabide.

Bertalalde, Andra Mari Zahar egoitzari, mantentimendurako eta ekipamendurako 29.280 euroko dirulaguntza eman zaio, hau da, onartutako aurrekontuaren (36.600 euro), %80a.

Egin beharreko lanen artean leihoen mantentimendua, etxaurrea eta barrualdea pintatzea.

Etxebizitza beharrari buruzko inkesta

Udalak jakin nahi du zenbat interesdun da-



ARGAZKIA: J.J. GUERRERO

Barañaingo Lagunak garaile Emakumeen III. Futbol Kopan

Batzoki elkarteak, Udalaren babesarekin eta Beti Gazte elkartearen laguntzarekin hirugarren urtez antolatutako Emakumeen futbol Kopan Barañaingo Lagunak taldea suertatu zen garaile. Nafarrekin batera, Irungo Mariño eta Bilboko Athletic aritu ziren (goiko argazkian, hiru taldeak elkarrekin). Lehen partidari Athletickek eta Mariñok husna berdindu zuten eta irundarrak nagusitu ziren penaltietan. Bigarrenean, Lagunak-ek 1-0 irabazi zion Bilboko taldeari eta hirugarrenean, Lagunak-ek 2-1 irabazi zion Mariñori. Irabazlearen kopa Lagunak taldeko kapitainak hartu zuen Koldo Erkizia alkatearen eta Juan Fermin Mitxelena, Batzoki elkartearen eskutik.



goen Babes Ofizialeko Etxebizitzak erosteko edo alokatzeko, etorkizunerako beharrak aurreikusi eta hirigintza jarduerak planifikatzeko.

Horregatik, holako etxebizitzak erosi edo alokatu nahiko lituzketen interesatuei eskatu zaie udalean izena emateko, irailaren 28a baino lehen. Inkestaren helburua bakarra da: informazioa eskuratzea. Beraz, zerrendan izena emateak ez du inolako eskubiderik bermatuko.

San Fermin elkarteak Hondarribiara

San Fermin erretiratuaren elkarteak Hondarribiara ateraldia antolatu du irailaren 20rako. Autobusa 8:30ean abiatuko da plazatik eta Sara eta Donibane Lohizune bisitatu ondotik Hondarribia bisitatu eta bertan bazkalduko dute, Blanca de Navarra kolonietan. Ateraldi honetan parte hartzeko

izen eman beharko da Nafarroako Kutxako bulegoan, irailaren 15a baino lehen. Urrezko Adina elkarteak kide direnek 16 euro ordaindu beharko dute eta ez direnek, 18.

Osasunaren peña

Osasuna futbol taldearen peña sortu berri da herrian. Peña honetako kide izan nahi dutenek Koskilla ostatuan eman behar dute izena.



Ikasturte berria

ikastaroak • materiala...



AXULAR
 Fotokopiaz, fax-a, erreuterarekin,
 planifikazioak, albokariak, prentsa, letrak, testu,
 liburua eta enkarguz egiten dira.

Santiago • ELIZONDO • Tfnoa: 948 581 537

LEGARRA
ESKOLAKO MATERIALA
PRENTSA

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 • LESAKA

Angie
 ENGLISH ACADEMY

ITZULPEN LANAK EGITEN DIRA
 2007/2008 kurtsorako matrikulazio
 epea zabalik, plaza mugatuak
 Ikasturte hasiera irailak 17

Elizagibela, 7 behea- 31740 SANTESTEBAN
 Tfno: 626 908 076 • angieacademy@hotmail.com

TOKI ONA BERA
Udal kiroldegia

BERAKOUDALA Urdul Bera
Auzoan ezinezko gurekin kirol egiten!

2007-08 Kirol jardueren programa. Apunta zaitez!
 Izen ematea: irailaren 17tik 21era
 Irailak 12 inguruan etxeetara udal kirol programa guztiarekin eskuorria banatuko da

INFORMAZIOA: kirol bulegoa 948630215

FOTOKOP
 Itze koloretan eta digitalizazio

Inprimaketak, zuri beltzean eta koloretan (katalogoak, prezioen zerrendak, biela txartelak...)
 Planen inprimaketak, eskarwatzeak, tamaina handitzeak eta murrizteak egiteko.

Enpresendako aurrekontuak

Fonuen karta: 4 • IRLIN
 Tfnoa./Faxa: 943 63 22 11

Tel eta Faxa: 948 450 289
 e-posta: costiz@teletel.es
 Parrokia 17 • DONEZTEBE

CASA COSTIZ

Eskola-liburuak eta materiala erosterakoan, bizikleta baten eta eskola material ezberdinen zozketan parte hartuko duzu.

ZOKZETA EGUNA: irailaren 28an
 Hastezko lehenen, berriz berriz
 Oso giro onetan, laguntza eskaintzen

Ez itxaron nota txarrei, ingelesa garaiz hartu

SPARK
 JULIE'S ENGLISH ACADEMY CENTER
 2007-2008 IKASTURTEA

Irailaren 14a arte matrikulazio epea irekia
 Azterketa ofizialetara aurkezteko prestakuntza
 Haur eta heldua • Hastapen ikastaroak

Tfnoa: 948 580 175 • 636 858 850 • ELIZONDO

s@re

INFORMATIKA AKADEMIA
 - Kurtsuak:
 Ofimatika, Mekanografia, internet...
 - Web orrialdeak egiten dira enkarguz
 - Bestelako lanak enkarguz...
 Izen ematea: iraila bukaeran
 ikastaroak urritik aurrera

Leizako errep. 29 • DONEZTEBE
 Tfnoak: 948 450 755 • 615 561 456



ETXALAR

Frontoiko teilatua moldatuko da datozen asteetan

Egurlan Bortziri S.L. enpresak eginen ditu obrak 72.800 euroren truke

Joseba eta Nerea

Frontoiari teilatua eman zitzaionetik 20 bat urte pasatu dira eta, urteen poderioz, aunitz hondatu da teilatuaeren egoera. Itxuraz, arazo nabarmenik sortu ez bada ere, aspalditik ikusten zen obra-lan batzuen beharra. Hori dela eta, udazken honetan emanen diote hasiera teila-berritze lanei. Egurlan Bortziri S.L. enpresak eginen ditu obrak 72.800 euroko balioarekin.

Solasaldia

Joan den ortziralean, abuztuak 31, Euskara Batzordeak antolatutako solasaldia izan zen Kultur Etxean. *Afrikatik aunitz jende heldu zaitgu. Zergatik?* izenburupean, Murdeneko Bordako Fernando Sanz-berro luze eta zabal ari-

tu zen azken urteotan hain "modako" bihurtu diren Afrikako etorkinen inguruan. Sanzberrok urte aunitz daramatza Afrikan misiolari, eta hango errealitatea bertatik bertara ezagutzeko aukera izan du. Hitzaldian, modu zuzen, eta batzutan harrigarrian, hurbildu zien Afrikako errealitatea bertara bildu zirenei.



ARTXIBOA

Diru eskas Nafarroako Gobernutik

Kostata atzenduko ditugu etxalartarrok joan den maiatzeko uholdeak. Kalteak ikaragarriak izan ziren, eta haiei aitzin egiteko, Nafarroako Gobernuak kalteen %100a ordainduko zuela agindu zuen bere garaian. Parlamentuan onartu zen, eta gobernuko ikuskariek txostena egin zuten kalte-ordainak baloratzeko. Euren txosten hartan 213.979 euroko balorazioa egin zen, baina lehen egun horietan ez ziren kaltetutako leku guztiak ikusi. Udalak bere balorazioa egin zuen, eta 391.863 eurotan baloratu zituen kalteak, kasik 178.000 euro gehiago. Momentuan Udalak Nafarroako Gobernutik datorren dirulaguntza onartu du moldaketa lanak lehenbailehen hasteko, baina ez dio uko egin kalte ordainen %100 lortzeari, hori baita Nafarroako Parlamentuak hartu zuen erabakia. Udal langileek lanean segituko dute dirulaguntza osoa eskuratzeko.

Txozna arrakastatsua

Aurtengo Andremerietako arrakastarik handiena izan da, herritar guztien ahotan egon dena eta haur, gazte nahiz helduek, bestetako egunen batean, egunero ez bada, bisitatu zutena: gazteen txozna. Bertze herri aunitzetan aspalditik paratzen bada ere, Etxalarren aurtun antolatu da lehenbizikoz. Hainbat txandatan banatuta, kasik herriko gazte guztiak aritu ziren zerbitzari-lanetan. Txozna plaza bazterrean zegoenez, plazako berbera giroa aunitz altxatu zen, eta momentu aunitzetan plaza jendez bete-betea ikusi ahal izan zen, Argazkian, Matxine, Unai eta Riki.

ARGAZKIA: LEIRE OLAGARAIK UTZITAKOA



**BORTZIRI
UNSIÓN ANAIK**
Sukalderako altzariak

Berean etxean • LESAKA
Tel.: 948 637 208 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

J. RAMOS
zolak akutzilatatu eta
barnizatzen ditut

Sakelekoa: 637 836 023 • LESAKA

USOA
nekazari
kooperatiba

ganaduarentzat
pentsurik egokiena

Tel: 948 635 214 • ETXALAR

bortzIRUDI
bortzirudi@telefonica.net

KARTELAK • KAMISETAK • BIZERAK • TROKATRIAK (Nahi duzun neurri • ditazurekin)
FOTOKOPIA DIGITALAK, KOLORETAN, TIRAGEJETAZ • PLANOAK
ENKADERENAZOAK • PLASTIKAZAN • PEPETTOK • BULEGO MATERIALA
DISEÑO GRAFIKOA • LOGOTIPOAK • ERROTATZAK • IMPRENTA

Etxeare 26. Eskaineko Behe D • BERA • Tel-Fax: 948 631 521

IRU BIDE
Ermitagia • Asador

Berriztatze • Lesaka
Tel: 948 637 127

ARANTZA

Hamar ikasle gehiagorekin, ikasturte berria hasiko da ortziralean

Uda giroan iragarritako hitzorduak ederki iragan dira

Nerea ALTZURI

Abuztua ere haltso! Eguraldiak ez du aldaketa haundiegirik izan. Uda kaxkarra joan da... Euri aunitz egin zuen Amabirjin astearen hurrengoan eta azken egunotan, berriz, bero handiko lauzpabortz egun izan dira. Benetan bero patsa edo sapa izan dugu egun batzuetan bai! Nolanahi ere, han eta hemen, edozeinen ahotan udako eguraldia ez dela urtesasoi honetako mintzagai da.

BESTAK GIRO ONEAN

Patata tortila lehia- ketatik hasi eta herri bazkariaren ondorengo orduak arte herri giroan eta gustora pasatu ziren egunak. Tartean, dantza saioak, kirol ikuskizunak, haurrentzako jokoak, bertso saioa,

dantzaldiak... Era guzietakoak izan dira.

Bestak bukatu eta zortzi egunen buruan, herriko gazte talde baten antolatuta besta eguna izan zen abuztuaren 25a. Afaria eta kontzertuak izan ziren goizaldera arte. Arantza Rock jaialdia ez da antolatu oraingoan baina, bertze egitarauarekin eguna ongi joan zela erran dигute antolatzaileek.

Ikasturte berria

Aste honetan mai-xuak, irakasleak, hezitzaileak... beuren zereginetara itzuli dira. Ikasleek, berriz, ortziral honetan bertze ikasturte bati ekinen diote. Aurten 3 urteko bederatzihaurtxok ikasketa bidea abiatuko dute: Beñat Andueza, Leire Bereau, Aiora Iturria, Lorea Zubieta, Mikel Fernandez,



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Ekitaldi desberdinen lekuko izan ziren herriko bestak. Goian Amabirjin Egunean dantzan aritu ziren batzuk, eta behean herri kirol saioko kuadrila.

Enaut Sanjuan, Nora Ramos, Luis Miguel Burgete eta Imanol Lebon. Lehen Hezkuntzako 3. mailan bertze bat hasiko da, Daniel Ramos.

Guztira 43 ikasle izanen dira aurten eskolan, 3 urtetik 5 urtera bitartekoak 18; Lehen Hezkuntzan, 1go mailatik 6. maila artean 21 eta DBH 1 eta 2. mailan lau.

Dirulaguntzak

Nafarroako Gobernuak Eskolako obra batzuetarako dirulaguntza onartu du. Kanpoko atekak, leihoak eta pertsianak aldatu eta zola lixatzen 5.900 euro gastatu dira eta 3.835 jaso. Berokuntza eta ur beroaren instalazioa egokitu eta eskailerak eta jolastokia konpontzeko

1.550 euro behar dira eta laguntza 1.007koa da. Guraso Elkarteak 566 euro hartuko ditu.

Osildera motozerra bueltatzeko

Abuztuaren 20tik 25erako astean Osildetik motozerra eraman zuten norbaitek. Familiak motozerra bueltatzeko eskatu du.

TOAILAK
Toailak-Manteleriak-Oheko maindreak.
Eskolako haurren mantalak etab...
bordatzan ditugu
Herriko bestatarako, kamisetak, eta blue
peña bakoitzaren logotipo eta izenekin
bordatzan ditugu
Eterni Plz. Berriz 4ra eta ikusi bertara enkantatzen!! Tel: 948 637 660 - 689 481

J. MANU
IGELTSU ETA MORTERO PROIEKTATUA
ARANTZA • Tfnok: 637 883 000 - 948 634 107

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde
1940
Altzateko plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

Iturría
HIDROERREINTZA
HIDROSEMERA
FERRIS BAZKOTZENA
LARRALDEA
948 634 034
948 634 034

ERREPIDEAK

Bi astetako mantenimendu lanen ondotik zabalik daude Almandoz eta Belateko tunelak

Itxi eta egun berean kamioi batek istripua izan zuen Belateko maldan

ttipi-ttapa

Almandoz eta Belateko tunelak ohiko martxara bueltatu dira. Bi astetan berrikuste eta mantenimendu lanetan aritu ondotik abuztuaren 23an ireki zituzten ateak berriz. Hasiera batean hilaren 29an irekiko zituztela iragarri arren, azkenean aitzineratu egin zuten eguna. Tarte horretan, bertzeak bertze, tunel barenen pitzadurak konpontzen aritu dira. Guztira 416 torloju paratu dituzte, 540 metro koadro sare elektrosoldatu eta 60 metro kubiko hormigoia erabili.

Lanek iraun duten bitartean, lehengo bide zaharretik bideratu zuten trafikoa. Baina tunelak itxi eta egun berean, abuztuaren 6an, lehen istripua gertatu zen. Belate maldan kamioi batek istripua izan zuen eta erreil bat itxita gelditu zen. Biharamun goiza bitarte ez zuten ibilgailua bidetik erre-

tiratu. Bertze egunetan ere trafikoa handia ibili zen Almandoz eta Belate aldeko errepideetan, are gehiago, uda sasoiaren trafikoa handitu egiten dela kontuan hartuz.

10 urtetan 7 aldiz itxita

Aurten hamar urte beteko dira Belate eta Almandozko tunelak ireki zirenetik. Geroztik ke-xu eta obra ugari le-kuko izan dira; behin baino gehiagotan itxi behar izan dituzte konponketak egiteko edo segurtasun arazoak sortu direlako. Orain urte bat, adibidez, lur-jausia bat izan zelako.

Lau urteko obren ondotik, 1997ko azaroan ireki ziren bi tunelak. Ekipamendua kontuan hartu gabe, 4.000 milioi euro inguru erabili zituen Nafarroako Gobernuak tunelak egiten, aurreikusitakoa baino %30 gehiago. Bere garaian, ia mila milioiko aurre-



kontuarekin, tunelak segurtasun sistema aitzindarienekin hornitu zituztela erran zen. Berriki larrialdietarako plan berezia ere onartu zen. Herritar eta bizilagunen artean, ordea, zalantza paratu izan da hori, haina nola, larrialdi irteerarik ez dutela edo argiztapen eskasa dutela salatuz.

ARGAZKIAK: JOSUNE ITURZAETA
Trafiko handia ibili zen tunelak itxita egon zirenean.



Zerbitzu ofiziala **BIOK BAT** tailerra
ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 898



NAFARROAKO QUAD eta ATV LANTEGI OFIZIALA
www.autoquadxl.com • Tfnoa: 948847512

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA

Kontaketa ondaregia: 9etatik 12etara eta 14etatik 19etara. Ordos eskatu

ONDOKIDETATIK INDARTZERRI:

Diabetes - Aorta - Zizareak - Larru azaleko alergiak - Buruko mina
Oinaren izaerria - Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRERKURATZEA:

Miegia - Bista alferria - Estrabismoa - Begi louseak kataraktak

GHIARRÉ ARAZOAK:

Bikortzea - Artritis - Erreuma - Artrisia - Lumbalgia - Bihurdurak - etab

Telefona: 943 623 055

San Marcial, 7 - 4 - IRUN

GUZTIA 315€

pareta - argia

+

ispilua

+

konketa

+

altzaria

GAMMA
GRUP



alkain
zeramikak eta bainuak

AMUTALDE 21 · 20280 HONDARRIBIA · 943 64 52 54
www.alkain.com

SUNBILLA

Irailaren 22an inauguratuko da Ramon Latasa plaza

112 aizkolarik erakustaldia eskainiko dute, eta ondotik, herri bazkaria egingen da

Jaione OTXANDORENA

Datorren irailaren 22an Ramon Latasa plaza berriaren inaugurazioa egingen da. Egitarau zabala prestatu dute egun horretarako: 11:00etan plaza eta eskulturaren inaugurazioa egingen da; 11:15ean Angelmari Peñagarikano eta Julen Zelaieta bertsolariak; 11:30 ean aizkolarien aurkezpena eta Ramon Latasaren irudiak pantaila erraldoi batean; 11:50 ean 112 aizkolarien erakustaldia izanen da, bortz proba desberdinetan: Lehenengoan haurrak metroko enbor bat moztu beharko dute, bigarre-

nean 2. mailakoek 3 kanaerdiko moztu beharko dituzte, eta zaharrek bi kanaerdiko; laugarrenean gazteak hiru kanaerdiko moztuko dituzte, eta akitzeko, lehenengo mailako aizkolaria lau kanaerdiko moztu beharko dituzte.

Ondotik, 14:30ean herri bazkaria egingen da, eta arratsaldean dantzaldia Joxe Angel musikariarekin. Egun horretarako bazkarirako txartelak Mari Sol janaridendan, Pixarrenean, Maria Jesus harategian, Fonda Ostatuan eta Itturburu ostatuan daude salgai, 25 eurotan. Txartelak

hartzeko epea Irailaren 12an akituko da.

Giro ederrean bestak

Bertze urte batez, herriko bestetako egitaraua ekitaldiz gainezka egon zen. Egunez egindako ekitaldi gehienetan jende ugari bildu zen. Mus txapelketan Furgencio Iriarte eta Oryoz izan ziren txapeldun; plater tiroketan Javier Ibarak irabazi zuen; aitzur tiraketan eta toka txapelketan Daniel Bertiz izan zen nagusi mutilen artean, eta nesken artean, berriz, Edurne Urroz. Zorionak irabazle eta partehartzaile guz-



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA ETA JAIONE OTXANDORENA

San Tiburtzio Egunean dantzariak saio polita eskaini zuten. Umeek ere ederki pasatu zituzten bestak.

tiei. Baita gainerako ekitaldietako parte-hartzaile guztiei ere: herri kirolak, gazteen ginkana, pilota partidak eta abar. Aipatu, orandik

inaugurazio ofiziala egin gabe badago ere, plaza berriaren egin zirela bestetako zenbait ekitaldi: dantzarien emanaldia, herri kirolak...

1951tik lentzeria-etxea
Casa Cambra
 Tafalla, 13 • IRUÑEA • 948 230 634

albornozak • mantelak • edredoi nordikoak • kuxinak
 ohe estalkiak • maindireak • toailak • edredoi-azal nordikoak

mantetan eskaintza zabala

MALERREKA

Futbol talde berria sortu da Donezteben Erregionaleko Lehen Mailan

Futbol zelairik ez dagoelako, etxeko partidak Atarrabian jokatuko dituzte

ttipi-ttapa

Erregionaleko Lehen Mailak ordezkari berria du: Doneztebe. Herriko Futbol Kluba 2004an eratu zen, eta urte aunitzetako lanaren ondotik, 25 laguneko taldea osatu dute herriko eta inguruko jendearekin. 25etik 14 dira Doneztebekoak, eta gainerakoak Ultzama, Sunbilla, Narbarte, Zubieta, Legasa eta Eltzaburuakoak dira. Lehendakaria Jaime Sein da, lehendakariordea Antonio Irtzoki eta entrenatzaileak, Mikel Maia, Jabier Jabalera eta Juan Carlos Arregi. Hasieran 12.000 euroko aurrekontuari egin beharizan zioten aitzin, orain, ordea, 7.000 euro behar dituzte. Futbol zelairik ez dagoenez, etxeko



ARGAZKIA: LEGARRA

Doneztebe futbol taldeko jokalaririk batzuk.

partidak Atarrabian jokatuko dituzte.

Hauek dira taldeko jokalaririk izenak: Aitor, Ander, Andoni eta Eduardo Bertiz, Aritz Ba-

leztena, Asier Hernandezena, Eneko Larraioitz, Garikoitz Urrotz, Haritz Arriola, Ibai Ordax, Iker Irtzoki, Iñigo Ostiz, Iban Lopez, Mi-

kel Telletxea, Iban Santesteban, Jaime Sein, Jabier Otermin, Jon Maritxalar, Jon Mikel Asensio, Joseba Elizagoien, Josu Santesteban, Li-

borio Ariztia, Mikel Arrieta, Mikel Ibarra eta Urko Loiarte.

Agenda 21erako logotipoa eta lema bilatzeko lehiaketa

Udan Malerreka Agenda 21erako logotipoa eta lema bilatzeko lehiaketa bat ere paratu zuten martxan. Lehiaketaren saria 300 eurotakoa da, eta irailaren 14an akituko da proposamenak bidaltzeko epea. 16 urtetik goitikoentzat dago zabalik lehiaketa, Agenda 21 eta Malerreka hitzak agertu beharko dute. Lehiakide bakoitzak bi obra (logoa eta lema) aurkeztu ahal izanen ditu gehienez, eta euskari informatikoan egin beharko dela.

Barceló
BIDAIAK

3.adinekoentzako bidaiak

Plaza Zaharra, 4
31770 LESAKA (Nafarroa)
Tfnoa: 948 638 179
lesaka@barceloviajes.com

BEINTZAKO OSTATUA
© 948 45 00 14
www.beintzakostatu.com
ESTRATEGIA, ORGANIZAZIO, LOGOTIPOA, LEHIAKETA, BERRIKALAKIA
ORBELA

Alberto RETEGI
abokatuak
abokatuak
© 948 630 763 - Aitzale, 17 - BERA

Larkilana

ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA

ESTRATEGIA, ORGANIZAZIO, LOGOTIPOA, LEHIAKETA, BERRIKALAKIA
HARRERAKO
KONZULTAK
HARRERAKO
HARRERAKO

SANTIAGO 55 2ºB ELIZONDO TEL 948 581 831

OITZ

Herriko bestak irailaren 7tik 10era

Igande eguerdian herri kirol saioa izanen da

Ortzirala 7

20:00etan altxaferoak beste hasiera emanez. Doneztebeko txistulariak herrian barna ibiliko dira. **21:00etatik aitzinera** baztan zopak Herriko Ostatuan. **Gauetz** dantzaldia JOXE ANGEL akordeoilariarekin.

Larunbata 8

10:00etan gaztetxo-en mailako laxoa partida: Oitz-Donztebe. **12:00etan** meza nagusia. **16:30ean** haurrendako jokoak herriko plazan. **17:00etan** Angel

magoaren erakustaldia. Ondotik haur eta helduendako txokolatea. **19:00etan** herritarren arteko IV. patata tortila lehiaketa. **20:00etan** dantzaldia AITOR akordeoilariarekin. **Gauetz** TRIKIDANTZ taldearekin dantzaldia.

Igandea 9

11:00etatik aitzinera herriko artisauen erakusketa. **13:00etan** herri kirolak: Agite eta Raul Kastro, Luis M^a Belarra eta Aierberen aurka. **16:30ean** mus txapelketa herriko elkartean. **17:00etan** pilota parti-



dak amateurren artean. **20:00etan** DIEGO QUEVEDO mariatxiaren abestiak. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia JOXE ANGELEkin.

Astelehena 10

14:00etan herri bazkaria, Sebastian Lizaso eta Aitor Mendiluze bertsolariarekin. **17:00etan** toka eta sokatira herritarren artean. **Arratsaldez eta gauetz** dantzaldia JOXE ANGELEkin. Beste bukaera emateko, kalejira herrian barna eta GAIXOA NI.



Duela bizpahiru urteko herri bazkaria ageri da goiko argazkian. Behekoa orain hiru urtekoa da, eta patata tortila lehiaketako partaideak ageri dira.

ARTXIBOA

BERA Zera inguruak klase guzietako insektuz (saxorroa, zinsurre, armiarma, kukuxu...) eta urratel sagotsez garbitu nahi baduzu, deitu! Termite eta Pipies tratamendurik.

GOIEKO Industria Garbitasun Produktuak

Tel: 948 625 587 • Zakuin, 42 A • BERA

Javier Manterola

Tekniko instalatzailea

Iturgintza • Gasu kalafakzioa

Tfnoa: 629449602-BERA

OITZKO OSTATUA

ongi pasa bestaki

948 451 951 • 948 450 168 • OITZ (Nafarroa)

OIZKO UDALAK

besta zoriontsuak opa dizkie herritar eta bisitari guziei

EZPELURA ITURGINTZA S.L

Kalafakzioa • Gasu
Elektrizitatea • Eguzki plakak
Zoru bero emaila

Tfnoa: 606 337 427 • OITZ (Nafarroa)

ERATSUN

Lokariko Amabirjin bestak irailaren 6tik 9ra

Larunbat eguerdian aizkora apostua izanen da eta arratsaldez herri kirolak



Osteguna 6
20:00etan txupina-
zoa. **Arratsaldez eta**
gauetz dantzaldia MO-
DESTOrekin.

Meza nagusia. 13:00-
etan aizkora apostua.
18:00etan herri kirolak.
Arratsaldez eta gauetz
SONIDOS taldearekin
dantzaldia.

Ostirala 7
09:00etan diana txis-
tulariekin. 12:00etan tor-
tila lehiaketa. 18:00etan
pilota partidak. 19:00-
etan trikitixa jaialdia.
Arratsaldez eta gauetz
dantzaldia TRIKIDANTZ
taldearekin.

Igandea 9
09:00etan diana txis-
tulariekin. 11:00etan
mus txapelketa. 14:00-
etan herri bazkaria ber-
tsolariekin. 18:00etan
pilota partidak. **Ondo-**
ren ahari apostua. **Goi-**
zez eta arratsaldez
haurren parkea. **Arra-**
tsaldez eta gauetz MO-
DESTO akordeoilaria-
rekin dantzaldia.

Larunbata 8
09:00etan diana txis-
tulariekin. 12:00etan



Kirolak herrian duen afizioa ezin da ukatu, horren lekuko bestetan izan di-
ren kirol saioak. Argazkiak ez dira berriak, baina aurtien ere ez da pilota par-
tida eta aizkora aposturik falta izanen.


ARTXIBOA



SANTESTEBAN TAILERRAK

Leitzako B, • DONEZTEBE • T. 948 450 282 • 948 450 597

ERA GUZTIETAKO ERREMOLKEAK



Ehizarako, motoak, zaldiak eta quad-ak garraiatzeko...
zure neurrira egindako erremolkeak

ITUREN

Irailaren 22an egingen da Joaldunen Eguna

Eguerdian Gure Txokoa eta Igantziko taldeak herri kiroletan arituko dira

Ainara MINDEGIA

Aurtengo Joaldunen Egunak badu data dagoeneko. Heldu den irailaren 22an egingen da. Goizean goiz, 7:30etan, joaldunak plazan elkartuko dira dena prestatzeko eta 10ak aldera joaldunen eta herriko trikitilarien ibilaldia egiten hasiko dira baserriz-baserri. Goiz osoan baserrietan ibiliko dira, eta seguru baserriarrek ongi etorri beroa egingen dietela etxean. 11:00etan herriko plazan artisauen azoka ikusgai egonen da.

Eguerdian herrira jautsi eta herriari buelta eman ondotik, herri kirol saioa izanen da plazan. Igantziko taldea eta Berako Gure Txokoa taldea nor baino nor arituko dira. Ondotik bertso-lariak eta 15:00etan bazkaria Herriko Etxeko saibaietan. Bestak segida izanen du bazkalondorian, arratsalde eta gauaz

dantzaldia izanen baita.

Ikasturte berrian 9 ikasle berri hasiko dira

Irailaren 6an hasiera emanen diote Ituren eta Zubietako haurrek ikasturte berriari. Aurtentzen denetara bederatzi haurrek izena eman dute, horietatik zortzi tikiak, eta bederatzigarrena hirugarren mailan sartuko da. Bederatzi horietatik bi kanpotik etorritakoak dira.

Trikitixa eta pandereta ikastaroan izen ematea

Urtero bezala Ituren, Oronoz-Mugairi eta Sunbillan emanen dira klaseak. Ikasturte hasiera urrian izanen da, baina apuntatu nahi duenak irailaren 19a baino lehen egin beharko du 646 298568 telefonora deituz.



ARGAZKIA: AINARA MINDEGIA

Ander Erasun Nafarroako txapelkun

III. Mailako aizkolarien finala Etxalarren jokatu zen abuztuaren 15ean. Raul Castro, Arkaitz Olano, Ander Erasun, Julen Kañanames eta Garikoitz Larretxeak aritu ziren; txapela, ordea, Ituren aldera etorri zen. Ander Erasun izan zen nagusi (8:39:21); bigarren Arkaitz Olano (10:21:48), hirugarren Raul Castro (11:27:15); laugarren Julen Kañanames gelditu zen (11:45:57) eta bosgarren Garikoitz Larretxea (12:03:06). Anderrek marka berria ezarri zuen, Aitor Senosiainen denbora hobetuz (9:04:40). Heldu den urtean bigarren mailan aritzeko aukera izanen dute orain Ander Erasun eta Arkaitz Olanok. Herritar gaztea eskualdeko herrietan erakustaldiak egiten ibili da bertze aizkolariekin batera, Donamaria, Areso, Ezkurra, Leitza eta Sunbillan. Bertzalde, aipatzekoa da, orain arte Ander plazaz-plaza eta txapelketetan parte hartzen ibili dela, eta orain bertze aizkolaria gazte bat animatu dela: Kenari Erasun. Datorren irailaren 22an Sunbillan egingen den Ramon Latasaren omenaldian 112 aizkolariren erakustaldia izanen da, eta Ander eta Kenari Erasun lehengusuek parte hartuko dute. Kenari Erasunek lehenbiziko proba egingen du Julen Larrea, Mikel Zabaleta eta Iker Vicenterekin batera. Egin beharreko lana metroko enbor bat moztea izanen da. Ander, berriz, laugarren proban arituko da. Denetara 10 bikote arituko dira eta egin beharreko lana hiru kanaerdiko moztea izanen da. Ander Erasunek, Oihan Larretxea izanen du bikote.

Mundua zure esku jartzen dugu



Canal 9 Euzk. 22-12 BUREA
948 238 348 - can9@marfilviajes.com
Paizko Cavalero, 40 BUREA
948 260 200 - paizko@marfilviajes.com
Ferrer Plaza, 13 BARRIA
948 261 200 - ferrer@marfilviajes.com
LA MORETA merkataritza erria DORDOULLA
948 230 220 - more@marfilviajes.com
Gandekoa Euzk. 3 TUIERA
948 848 418 - tuiera@marfilviajes.com
Albata, 38 H. LEZAMA
948 827 870 - albata@marfilviajes.com




IRUÑA • BARAÑAIN • CORDOVILLA • TUTERA • LESAKA

ARGENTINA OSOA

Azaroaren 21etik abenduaren 7ra

Informazioa 948 206 246



Azaroak 21. Nafarroa-Madril-Buenos Aires. Iruña-Madril autobusez. Hegaldia Barajas-Argentina.

Azaroak 22. Buenos Aires. (ME). Bisita panoramikoa San Telmo auzoa, La Boca, Plaza de Mayo, Casa Rosada, Gobernuko egoitza, Cabildo, Katedrala, Mayo etorbidea, Kongresuko Plaza, etab.

Azaroak 23. Buenos Aires-Trelew (ME). Trelewra hegaldia. Arratsalde librea.

Azaroak 24. Valdes Penintsula (ME). Valdes Penintsulara egun osoko txangoa.

Fauna itsastarraren erreserba eta hegaztien behaketa eta interpretzio zentrorra eta Caleta Valdesen itsas elefante eta itsas lehoi kolonietara bisita. Puerto Piramiden baleengana hurbiltzeko ontziratzea.

Azaroak 25. Punta Tombo-Ushuaia (ME). Punta Tombora bisita. Ushuaiara hegaldia.

Azaroak 26. Ushuaia (ME). Beagle Kanaletik txango gidatua: Los Lobos irla, Los Pájaros Irla, Les Eclaireurs Faroa, Tierra del Fuego Parke Nazionala. Lago Roca eta Bahía Lapataia.

Azaroak 27. Ushuaia-El Calafate (ME). Hiria eta Fin del Mundo Museora bisita. Hegaldia El Calafatera.

Azaroak 28. Glaziareen Parke Nazionala (ME). Upsalla eta Onelli glaziareak itsasontzian.

Azaroak 29. Perito Moreno Glaziarea-Bariloche (ME). Bisita gidatua. Hegaldia Barilochera.

Azaroak 30. Bariloche (ME). Circuito Grande txangoa: Encantado Bailara, Trafal Laku, Nahuel Huapi lakuaren iparraldeko kosta eta La Angostura hiria.

Abenduak 1. Bariloche-Buenos Aires (ME). Circuito Chico txangoa: Patagonia erdialdeko Bariloche hiria, Nahuel Huapi laku, Liao Liao Penintsula eta Barilochera itzulera. Buenos Airesera hegaldia.

Abenduak 2. Buenos Aires (ME). San Telmo auzoko eta Placita Dorregoko denda eta merkatuetara bisita.

Abenduak 3. Buenos Aires (ME). Egun librea. Tango ikuskizuna.

Abenduak 4. Buenos Aires-Iguazu (ME). Brasil aldeko Iguazu ur-jauziak ikusteko bisita gidatua.

Abenduak 5. Iguazu ur-jauziak. (ME) bisita gidatua, Garganta del Diablo barne.

Abenduak 6. Iguazu-Buenos Aires (ME). Buenos Aires-Ezeiza Nazioarteko aireportua-Madril hegaldiak.

Abenduak 7. Madril. Barajas-Iruña autobusez. BIDAIAREN BUKAERA.

EZ GALDU AUKERA HAU
PREZIOA: 3.595€

Prezioak barne hartzen ditu: Hegaldia guztiak, joan-etorriak, 4 eta 5 izarretako hoteletan 15 gau logela bikotizean, mantenu-erdia, bisitak eta txangoak, gidariak, bidaiako asistentzia-asegurua.

Prezioan sartuta ez dagoena: Eskupekoak, Aireportu tasak, Banakako gela (947€ko gehigarria), Iruña-Barajas autobusa.

BERTIZARANA

Asteburu honetan egingen da Santa Leokadiako erromeria Legasan

Igandean meza nagusiaren ondotik bazkaria egingen da ermitan

ttipi-ttapa

Asteburu honetan besta egunak izanen dituzte legasarrak. Aste bat bertzerik ez da pasatu herriko bestak akitu zirenetik, baina berriz ere ospakizunekin segitzeko asmoa dute Legasan. Larunbat eta igande honetan, irailaren 8an eta 9an, Santa Leokadiako erromeria egingen da. Larunbatean zopak izanen dira ermitan, eta igandean, berriz, 12:00etan meza nagusia izanen da. Ondotik, 13:30ak aldera, bazkaria egingen da ermitan. Bazkalondoa animatzeko, arratsaldean, dantzaldia izanen da Onofrekin.

Mitxel Aginaga Suitzako podiumean

Mitxel Aginaga Narbarteko kirolariak emaitza onak eskuratuz hasi du denboraldi berria Suitzan lortutako hiru garren postu batekin. Bertizaranakoa ez zegoen bere egoerarik



onenean, baina hala ere ez zuen hutsik egin. Irabazleak ia lau minutuko aldea atera bazion ere, hagitz hurbil ibili zen bigarren postutik. Azkenean, baina, minutu erdia atera zion bigarrenak. Mitxelek, bere aldetik, 1:44:07ko denbora egin zuen; Senn Simeon irabazleak 1:40:42koa, eta Wüthrich Renek 1:43:36koa (goian lehen hiru sailkatuak; behekoan Mitxel ageri da).



Herriaren ondasunak argitzeko transakzio-hitzarmena onartu du Gobernuak Narbarten

ttipi-ttapa

Orain gutti Legasan egin bezala, Nafarroako Gobernuak herriarenak diren ondasunak berreskuratzeko transakzio-hitzarmenaren oinarriak onartu ditu Narbarten. Narbarteko kontzejua arabera, gaztainondoak, iratze lekuak, hariztiak, intxaurrenondoak, lizarrak eta abar lur komunalak dira, eta herritarrek horiek erabiltzeko eskubidea bakarrik dute. Uztailaren 30ean onartu zituen akordioaren oinarri orokorrak, Narbarteko Kontzejua eta herriaren lur eremuak erabiltzeko idatzizko baimena duten partikularren harteko hartu emanak erregulatzeko asmoz. Hitzarmenean notarioaren eskrituretan 2005eko urtarrilaren 1a baino lehenagoko datarekin ageri diren aprobetxamendu guztien batuketa hartuko da kontuan hitzarmenean. Halere, data horretatik aitzinerakoak ere onartuko dira, herritarrak herri-ondarearen kontra eta bigabekeriaren ondasu horiek beregutzen saiatu ez badira.

APARAN, S.A.
BRIKOLAILA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...



Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE


ERROTAZAR
harategia

Bertako produktua

Eztegara, 3 - BERA
Tel/Fax: 948 630 088

ZUBIETA



ARGAZKIA: LEIRE MARIEZKURRENA

Herri kiroltan parte hartu zuten emakumeak, beltzez ezkongabeak eta zuriz ezkonduak. Bi bazterretan, berriz, epaile lanetan aritu zirenak.

Giro onean joan dira aurtengoan ere Amabirjin bestak

Emakumeen arteko herri kirol saioak ikusmin handia sortu zuen

Leire MARIEZKURRENA

Beste leku aunitzetan bezala joan dira aurtengo herriko Amabirjin bestak ere. Bost eguneko bestetan izan zen zer ikusi eta zer egin. Hala, herriko emakumeek herri kirolen bigarren edizioa egin zuten. Aurreko urtean bezalaxe, emakume ezkonduak –zuriz jantziak– ezkongabeen –beltzez jantziak– aurka aritu ziren, eta denetara 24 lagun bildu ziren (bi epaile). Proba ezberdinak egin zituzten; zokorrak, txingak, iltze sartzea, korrika belarzama-

rekin, karretilla lasterketa... Aurten, berrikuntza moduan, arpanean eta arto zuritzen ere aritu ziren. Norgehiagoka handia sortu bazen ere, iaz bezala ezkonduentzako izan zen garaipena. Sokatirak ere ikusmira sortu zuen, baina kasu honetan ezkongabeak suertatu ziren garaile. Urteroko moduan, arrakasta itzela izan zen, alde batetik, herritarren artean ikusmira handia sortu zuelako eta bestetik, jende asko bertaratu zelako eta ikuskizun polita jarri zutelako. Heldu den urteko bestak ailegatzeko guttiago gelditzen da.

arropak - maindireak
mantak - nordikoak
toallak - kortinak
alfonbrak

Goya

Altsas, 5 - Tel: 948 630 083

ttipi
tapa

☎ (0034) 948 635458

orain, bai

IKASI / HOBETU ZURE EUSKARA

EMAN EZAZU IZENA IRAILAREN 5etik 14ra

2007 / 2008 IKASTURTERAKO MODALITATEAK

Astean 6, 8, 10 orduko ikastaroak egunero edo zenbait egunetara
Goiz eta arratsaldeko ordutegiak
Txandaka ibiltzen diren langileentzako ikastaro bereziak
Astean 20, 30 orduko ikastaro trinkoak
Gurasoei zuzendutako ikastaro bereziak
Goi mailako ikastaroak (c 1)
Egia titulua prestatzeko ikastaroak

MAILA GUZTIAK

ESKARMENTU HANDIKO IRAKASLEAK
KALITATE ONEKO IRAKASKUNTZA

PREZIO MERKE-MERKEAK

Nafarroako Gobernua

ZUBIARTE
Euskaltegi Publikoa

Mokarte parkea, z/g. 31620 UHARTE • TEL: 948 / 361091 FAX: 948 / 361092
euszubi@prte.cfnavarra.es • www.prte.cfnavarra.es/zubiarte

EZKURRA

Matxinearen egoera arriskutsua aztertu zuten abuztuko udal batzarrean

Etxe inguruko bidea ixtea eta jabearen mintzatzea erabaki zuten

Fernando ETXEBERRIA

Hilabetero bezala, udaleko alkate eta zinegotziak hilaren 11n elkartu ziren herriko gaiak aztertzeko. Besteak beste, Internet, faxa eta posta elektronikoa jartzearabaki zuten. Gisa berean, Matxinearen egoera larria ere aztergai izan zuten. Arkitekto bati iritzia eskatu zitzaion eta honen erantzuna garbia izan da: etxea egoera arriskutsuan dago eta bere inguruko bidea ixtea komeni da, eta gero, etxeko jabearekin mintzatu erabakirik onena hartzeko.

Bestalde, Mariezkurrena enpresalaster hasiko da goiko ur depositora ura igotzen.



ARGAZKIA: F. ETXEBERRIA

Erakustaldi txukuna egin zuten herriko gazteek hilaren 17an. Argazkian ageri dira parte hartu zuten mutilak.

Alkate berriak ekin dio agintaldi berriari, eta lehenengo lana frontoiko teilatua konpontzea izan da. Bestalde, herriko

jaien aurretik auzolanean herriko kale, bide eta errepidearen aurpegia zeharo garbi gelditu zen. Ea urtean gehiagotan

errepikatzen den hori.

Herriko pestak

Abuztuaren 15etik 20ra ekitaldi desberdi-

nekin gozatzeko aukera izan zen. Horiek arretik aipatzekoa da hilaren 17an, ostiralean, herriko gazteen artean egin zen herri kirol saioa. Benetan polita oso eta ikusgarria! Bestetik, Barranka ostatuan egin dako herri bazkarian 50 lagun bildu ziren. Herria animatzen, berriz, Jallisko Band, Zeus, Gaubela eta Sonidos aritu ziren.

Eta Mindegiaeren agerpen berria ere pozgarria izan zen, bere herrian aizkora hartu gabe zegoelako aspaldian. Lan txukuna egin zuen Arriaren aurka. Beste kirol ekitaldirik ere ez zen falta izan, pilota partidak, aizkora apustuak... Giro onean joan ziren bestak!



Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKEKAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA

Baztanentzat aberastasun iturri den proiektua



Artesiagako Magnesita da MAGNAk Erdizen magnesita ateratzeko duen proiektu berria. Baztan osoarendako motore ekonomikoa da, ingurumena errespetatzen duen proiektua eta Baztango jendeentzat etorkizun iraunkorra garantizatzen duena.

Proiektu honek aukera ematen dio MAGNARI aparteko natur baliabide honen irabaziak Baztango jendeekin partekatzeko, euren bizian integratzeko eta elkarrekin aurre egiteko etorkizunari.



ABERASTASUNA



→ Artesiagako Magnesita **ongi ordainduak diren lanpostu finkoen** sortzailea da. Zuzeneko 35 lanpostu eta zeharkako 150. Mekanikariak, soldatzaileak, pintatzaileak, elektrikariak, perforistak, garraiolariak, garabilariak, eraikuntza zibila, informatika, topografia, ingurugiro ingeniariak, ostalaritza, elikadura sektorea, burdindegi sektorea.

→ Baztango gazterian **prestakuntza** eskaintzen die, inguruko industri sarea bultzatzen du eta lan finkoa bitatzeko bertzeko eskualdetara joan behar izatea saihestuz.



INGURUGIROA



→ Artesiagako Magnesitarekin lurzorua eta urak deskontaminatzen ahal ditugu, hobeki ongarrizatuak diren soroak erdietsi eta azienda azkarragoak.

→ Ingurumen kalitatearen **kontroleko filtro bikoitza** pasa behar du: Nafarroako Ingurumen, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren aitzinean eta Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuaren aitzinean. Filtro bikoitz horrek bermatzen du prozesuak ingurumena errespetatuko duela.

→ **Teknologiariak aurreratuenak** ingurumenaren zerbitzura. Uhal garraiatzaileen karentatzeak, leherketak PRIMADET sistemarekin, pisten etengabeko asfaltatze eta ureztatzeak eta ingurunearen berreskuratze dinamikoak bermatu egiten dute eragin akustiko eta bisual minimoena duen erauzketa.

ETORKIZUNA

→ Artesiagako Magnesitak erreibua emanen dio eskualdean errotze handia duen industriari, haren etorkizuna bermatuz eta gazteei etorkizuna eskainiaz euren bailaran bertan.

→ **Epe ertain eta luzerako proiektua**. Erauzketak gutxienez 20 urteko ustiatze-epaia bermatzen du, baina balkeko industria eta enpresa munduan izanen duen eraginak lagunduko du enpresa berriak sortzen, orain daudenen jardura abikitzen eta urte aunitzetan material eta langileen eskaera sustatzen.



Artesiagako Magnesita

ABERASTASUNA | INGURUGIROA | ETORKIZUNA

ARESO

Antonio Alustizak txapela eskuratu du Uharte-Arakilgo artzain txakur txapelketan

Txapela irabazita, Euskal Herriko txapelketarako txartela eskuratu du

Juana Mari SAIZAR

Antonio Alustiza *Txi-ki* txakurrarekin zazpigarren aldiz txapeldun atera zen abuztuaren 26an Uharte-Arakilen jokatutako 40. ArtzaiTxakur Lehiaketan. Bederatzi parte hartzaile izan ziren eta hiru bakarrik iritsi ziren finaleko frogara. Antoniok eta *Txi-ki* 300 puntu eskuratu zituzten, bigarren bikoteak baino 35 puntu gehiago. Txapelak txartela eman dio Euskal Herriko Txapelketan parte hartzeko, aurten Aspe herrian jokatuko dena, irailaren 16an.

Mikel Olazabal profesionaletan

Mikel Olazabal Aresoko pelotari gazteak profesionalentzako saltoa egin zuen abuztuaren 13an Leitzako Amazabal frontoian. Trebe eta ausart aritu zen eta hainbeste buruhauste eman dion ezker eskuarekin egin zituen tanto gehienak, 14, hain zuzen. Asko gozatuz jokatutako maila oso ona emanez, eta horrekin batera konfidantza hartuz. Kirolen atalean ere bera izanen dugu solaslugin. Zorte on hasi berri duen ibilbidean.



ARGAZKIA: JUANA MARI

Aurtengo pestak ongi joan dira, eta bereziki arrakastatsua izan zen aurten berrikuntza izan den koadrilen eguna. Helduen sei koadrilekin eta umeen beste batekin, guztira ehun lagun inguru bildu ziren.

ARANO

Aspaldiko partez Suro auzoan saio polita eskaini zuten segalariek

Garai batean egun osoa pasatzen zen auzo honetan

Kontxi CLAVER

Urte asko pasa dira Suro auzoan jai ekitaldirik ospatu ez dela. Herriko zaharrenekin beraien gazte denboran egun bat auzo honetan pasatzen zutela diote. Aurten egun oso bat izan ez bada ere, bertan ekitaldi bikain eta atsegina eskaini zuen segalari koadrilak, Ainhoa eta Isabel Ansa tartean zirela.

Azoka txikia

Arrakasta ezinhobea izan zuen herrian egindako eskulangile eta produktuen erakusketak. Aurtengo azokaren hirugarren edizioa izan zen. Eltzeko gaz-

ta, gazta, sagardoa, txakolina, postreak... denetarik eskaini zuten bertan. Leku berean egin zen tortila lehiaketak ere, parte-hartze haundiarekin, gainera. 25 partaide aurkeztu zi-

ren eta bi sari banatu hoberenarentzat. Bat epaimahaiak erabakitakoa, kooperatiba etxe-koek jaso zuten, eta bestea, bertan bildutakoek aukeratutakoa Plazko Javierrentzat izan zen.

ZOZKETA



“badakit”
mahai jolasa

TTIPI TXARTETELAREKIN beti irabazten da !

Zozketan parte hartzeko
deitu eta eman zure izena

948 63 54 58ra



LEITZA

Irailaren 9an ospatuko da II. Taloaren Eguna

Goizeko 10etatik aurrera talogileak, artisauak, erakusketak eta beste izanen dira, eta eguerdian herri kirolak

Joseba URKIOLA

Lehengo urtean lortutako arrakastaren ostean, aurtengoan ere taloak presentzia berezia izango du Leitzaan. Plazaola Partzuergoak eta Leitzako Udalak elkarlanean antolatutako jaialdia irailaren 9an izanen da.

II. edizio honetarako, aurreko urtean egin bezalaxe, ekitaldi ugari eta orotarikoak antolatu dituzte. Helburu nagusia taloari dagokioen garrantzia eman eta Leitzako plazara hurbiltzen den edozeini, une eder bat eskaintzea izanen da. Merkatua goizeko 10etan zabalduko da eta bazkalordurate, zer ikusi ugari egonen da. Hasiteko aipatu, herriko hiru talogileak: Villabona, Saralegi eta Talotegiak goiz osoan present izango direla. Hauekin batera, Plazaola Partzuergoko kide diren artisauak ere bai: sagardoa, ezti, gazta... be-

zalako produktuak maingaineratuz. Berrikuntza gisa, esan, taloak egiteko tresnerien eta arto zuriketaren erakusketak ere ikusgai egonen direla.

11:00etatik 12:30ak bitarte, berriz, publikoak zuzenean parte hartu ahal izanen duen ekintzak antolatu dira. Aipagarrien artean, taloak egiteko tailerra eta etxeko txikienei zuzenduriko Talo Lehiaketa leudeke. Lehiaketa hau 4 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzat izanen da eta adin bakoitzeko eskulanik hoberenak sarituak izanen dira.

Ondotik, herri kirolariak izan dira arretoa osoa berenganatuko dutenak. 12:30etik aurrera, Mikel Saralegi, Aimar Irigoien, Jon Redondo, Arkaitz Olano, Ruben Saralegi eta Eneko Saralegik hainbat saio desberdin burutu beharko dituzte.

Ekintza hauetaz gain,



ARGAZKIA: ELENE ARRAZOLA

Gutxiago falta da hurrengo San Tiburtzioetarako

Eguraldia lagun, giro bikainean igaro dira aurtengo San Tiburtzioak. Asteburuan elkartutako jendetzaren ostean, asteko egunak lasaia go eta herrikoia goak izan zirela esan daiteke. Urtero legez, Aurrera Dantza Taldekoek eta Jeiki abesbatzakoek jaietako protagonismo handienetakoa gorpuztu zuten, bi ekitaldi hauek jendetza andana erakarri baitzuten. Hauetaz gain, aipatu, herriko txitulariek, goizeroko zenezek eta Incansables txarangako partaideek, aurtengoan ere garrantzi handia izan dutela. Berauek arduztzen baitziren jaietako egun luzei hasiera eman eta nolabaiteko atsedeen une bat ezartzeaz.

esan, Karrapen eta hau ere goiz osoan, herriko jatetxe eta taberna desberdinek taloak protagonizatzen hartuta eratu dituzten plater desberdin eta originalak ere ikusgai egonen direla.

Plazaolan barna II. Maratoi erdia

Plazaola Partzuergoak antolatuta, irailaren 16an Plazaolatik barna igaroko den Leitzako-Lekunberri II. Maratoi erdia burutuko da. Izen-ematea irailaren 12ra bitartekoa da eta antolatzaileek argi adierazi bezala, 200 pertsonen mugaturiko eki-

taldia izanen da. Interesatua dagoen orok informazio gehiago eskuratu nahi balu www.plazaola.org web orrialdean lortu ahal izango du. Gauza askoren artean, bertan daude aurre izen-emate orria, araudia eta frogaren profila.

Jeiki abesbatzaren oharra

Leitzako Jeiki abesbatzak ikasturte berri-rako kantu klaseak antolatu nahi ditu. Urritik aurrera gauzatuko diren saioak hirugarren edizioari dagozkionak izanen dira.

Dena den, Jeikikoek aurtengoan berrikuntza bat txertatu nahi izan dute. Abesbatzako partaideek plazaratu bezala, aurtengoan abeslarietaz gain, herritar guztietatik zabaldu nahi izan dieite mezua. Kantu klaseak hartu eta kantuen misterioez jabetzeko, ez baita zertan abesbatzako partaide izan.

Interesatuak 635 714 235era hots egin beharko du, 16:00etatik 18:00ak arte. Azken eguna irailaren 12a izango da. Gogoratu, kantu klaseak Irungo Eugenia Echaren eskolak emanen dituela.

Haitzetxea Landa Etxea
AISIALDIA
ZUGARRAMURDI
Tel: 670484567
687421445
www.haitzetxea.es

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tlxoa: 948 630 735 - 407 406 781

LABE ZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

GIZARTEA

Hamar bat eguneko bidaia antolatu du Arkupeak elkarteak Kubara

Irailaren 22tik urriaren 6ra Benidorrera joanen dira

ttipi-ttapa

Bidaia antolatzen segitzen dute Arkupeak erretiratuen eta pensionisten elkarteko lagunek. Hala, Kubara joanen dira urriaren 19tik 29ra. Hamaika egunetarako bidaia prestatu dute eta hainbat txoko bisitatuko dituzte. Lehendabiziko egunean, 19an, Noingo aireportuan elkartuko dira, eta bertatik Iruña-Madril-Habana bidea egingen dute hegazkinez. Bigarren eta hirugarren egunetan Habana inguruan ibiliko dira, hiriko erakin historiko eta leku preziatuak ezagutzen. Lau garren egunean Trinidad hiria bisitatuko dute, eta lekua ezagutzen bertze bizpahiru egun igaroko dituzte. Ondotik, Varadero aldera joango dute.

Hiru hiri haundi eta ikusgarri hauek eta euren bazterrak ikusitakotan berriz etxerako bidea hartuko dute hilaren 28an, eta hurrengo egunean ailegatu. Etxetik harat zer dagoen ezagutzeko aukera bikaina.

Benidorrera bidaia

Aitzineko urtetako ohiturari jarraiki, Benidorrera ere ateraldia egingen dute Arkupekoek, irailaren 22tik urriaren 6ra. Autobusez egingen dute bidaia eta horretarako lehen hitzordua 6:45ean paratua dute, Irunen. Dena den, Baztan, Leitza eta Goizuetako bidaiariek etxetik hurbilago autobusa hartzeko aukera izanen dute. 15 eguneko egonaldien ondotik, etxera-



Leku ikusgarriak bisitatzeko aukera izanen dute Kuban.

ko bidea hartuko dute.

Gurutze Sainduaren Egunean Lezora

Hurbilago ibiltzea gustoko dutenek Euskal Herrian bertan iza-

nen dute horretarako aukera. Heldu den irailaren 14an, Gurutze Sainduaren Egunean, Lezora joanen dira. Goizean meza entzun ondotik, kirol jaialdia izanen dute. 13:30 aldera

atuobusak aterako dira Hondarribia aldera eta 14:30ean bazkaria egingen dute Ardora jate txean. Arratsaldean, dantzaldia izanen dute, eta 20:00etan bueltan etxera abiatuko dira.

Haur jaioberrientzako osteopatia tratamenduak

Karlos Alzugaray
FISIOTERAPEUTA
OSTEOPATIA

Itzea 20 · 31780 Bera · Navarra
T. 948 630 187 M. 607 853 208

inprimategia
publizitatea
diseinu grafikoa

Mailposta Buzoneos
Leitzako bidex,9 · DONEZTEBE · 948 592 313

ARMABHEGON2XHAUPA

MENDIALDE
Jatetkea

Tel: 948 453 060
N-121-8, 6,5 km
LAMAUR

LINE-EN-ISO 9001

IAC
INSTITUCIÓN VASCA DE ENLACE CERTIFICADO
SCC-02-0199

udana
solaziones

Inportaziozko lehen kalitateko bakailu gaztusia
Bakailu gezatua eta kongelaturia, erabiltzeko prestat

Alkaga ind. - Barreta, 8 - 23 pabiloia - LESAKA - Tlxoa: 948 631 536 - Faxa: 948 631 550

LAGUNTZAK ETA SUBENTZIOAK

Laguntza eta subentzioei buruzko informazioa astero eguneratua www.ttipi.net eta **Ttipi-Ttapa** telebistan ere aurkituko duzu

Nafarroako Foru Komunitatean lanean ari diren langileen etengabeko prestakuntzarako ekintzak, Nafarroako ETE enpresetako Etengabeko Prestakuntzarako Planetan agertzen direnak (Europako Gizarte Funtzarekin finantzatuak), finantzatzeko dirulaguntzen deialdia onetsi eta dirulaguntza horiek emateko arauak ezarzen dituen Ebazpena.

Non argitaratua: *NAO 103 zk., 2007/08/20* 2169/2007 Ebazpena, uztailaren 2koa, *Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana.*
<http://www.cfnavarra.es/bone/078/F0711205.htm>

Nafarroako Foru Komunitatean lanean ari diren langileen etengabeko prestakuntzarako ekintzak, Nafarroako ETE ez diren enpresetako Etengabeko Prestakuntzarako Planetan agertzen direnak (Europako Gizarte Funtzarekin batera finantzatuak), finan-

tzatzeko dirulaguntzen deialdia onetsi eta dirulaguntza horiek emateko arauak ezarzen dituen Ebazpena.

Non argitaratua: *NAO 103 zk., 2007/08/20* 2170/2007 Ebazpena, uztailaren 2koa, *Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana.*
<http://www.cfnavarra.es/bone/078/F0711204.htm>

Elkarteen araubidea duten entitateek 2007-2010 denboraldian nekazaritzarako ustiatze gaitasun makineria erosteko egiten dituzten inbertsioetarako laguntzen arauak ezarri eta 2007ko deialdia onesten duen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 102 zk., 2007/08/17* 211/2007 Foru Agindua, uztailaren 5koa, *Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak emana.*
<http://www.cfnavarra.es/bone/078/F0711115.htm>

Abeltzaintzako ustiatzei bertan hildako abereak gordetzeko biltegiak

erosteko dirulaguntzak, de minimis araubidearen menpekoak, zuzentzen dituzten arauak eman eta 2007ko deialdia onesten duen Foru Agindua.

Non argitaratua: *NAO 98. zk., 2007/08/10* 201/2007 Foru Agindua, uztailaren 2koa, *Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak emana.*
<http://www.cfnavarra.es/bone/078/F0710905.htm>

Abenduaren 22ko 293/2006 Foru Aginduaren eranskina: mendekotasun handiko pertsonendako prestazio ekonomikoa eta Autonomiarako eta Mendekotasunaren Arretarako Sistema guttienerako babes mailako zaindaria ez-profesionalendako sostengua.

Non argitaratua: *NAO 99 zk., 2007/08/13* 149/2007 Foru Agindua, apirilaren 23koa, *Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria kontseilariak emana.*
<http://www.cfnavarra.es/bone/078/L0711803.htm>

Informazioa hau Cederna-Garalur Elkartearen Europe Direct Europari buruzko informazio zerbitzuak emana da. Kontsultatu www.cederna.es webgunea, "laguntzak eta subentzioak" atalean

LESAKAKO KULTUR EGUNAK

irailaren 15etik 23ra



Irailaren 15ean, larunbatarekin:
Kontzertua. *Gu ta gutarrak.*
Onin errekairene gainean. 22:30ean.



Irailaren 20an, ortzegunarekin:
Zer mundu berri ezagutu eta gozatzeko aukera ematen du euskara ikasteak?
Hitzaldia. Joxerra Gartzia.
Herriko Etxeko aretoan. 19:30ean.



Irailaren 17an, astelehenarekin:
Haurrentzako Karaokea *Iñigo Etxepare.*
Irain ikastetxearetoan. 17:00etan.



Irailaren 23an, igandearekin:
Neska politik, artasoro alaiak antzerkia.
Kasinon. 19:30ean.



Irailaren 19an, asteazkenarekin:
Haurrentzako jolasak. *Kulki.*
Tantirumairu ikastolan. 17:00etan.

Antolatzailea: Lesakako Euskara batzordea



Laguntzailea: Lesakako Udala



BAZTAN

Begoña Sanzberro Landa Garapen eta Ingurumen kontseilari izendatu du Sanzek

Kargu berriari osotasunean dedikatzeko, zinegotzi eta parlamentari karguak utzi ditu

Maite OTEIZA

Orain artio Baztango Udalean UPNko zereendaburua izan den Begoña Sanzberro almandoztarra Nafarroako Gobernu Landa Garapen eta Ingurugiro kontseilari izendatu berri du Miguel Sanz presidenteak berriki osatu duen gobernuan.

Begoña Sanzberro da Nafarroako Gobernuan euskalduna den lehendabiziko kontseilaria, eta kargu-hartzea ere euskaraz egin zuen «*nere ama hizkuntza eskuara delakoz*».

Aspaldi sartu zen Begoña politika munduan: bertze karguen artean UAGN sindikatuko agintari, Almandozko alkate, UPNren izenean zinegotzi eta parlamentari, eta orain gobernu kontseilari. Kargu berriari buru-belarri dedikatzeko parlamentari eta zinegotzi izateari uko egin dio. Hala, Baztango Udalean bere postua Miguel Angel Aldea, lekaroztarrak hartu du.

Aurkikuntza arkeologikoak Amaiurren

Abuztuaren 11n akintzat jo ziren Amaiurko Gazteluan egindako indusketa arkeologikoak. Aranzadi Zientzia Elkartek, Udala eta Amaiurko herriaren laguntzarekin joan den urtean hasitako lanei segida eman die aurten, eta hala, gazteluaren harresi, dorre eta gotorleku errenazentistaren aztarnak aurkitu dituzte.

Amaiera ekitaldian hainbat erakundetako ordezkariak parte hartu zuten, Virginia Aleman alkateak, Laura Igantzi eta Lore Arrondo Udalbidekoak, Udako Euskal Unibertsitateko zuzendariak eta Juantxo Agirre Mauleon Aranzadiko arduradunak.

Isuna Udalarari

Ur-Konfederazioak 600 euroko isuna paratu dio Baztango Udalarari, Bidasoara ur zikinak isurtzeagatik. Ur-Kon-



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Ordu bateko aparkamentua, gehienez ere

Leku guztietan autoak aparkatzea arazo larra bihurtu da, alde batetik ibilgailu kopuruarengatik eta bertzetik, leku guztietako ateraino ailegatu nahi dugulako. Elizondon aspaldiko partez soluzio bat eskatzen zen, batez ere merkatarien aldetik. Hauen eskaera kontuan hartuz, plazako aparkalekuan eta Axular karrikan, Santxotena jatetxea parean, alegia, ezin da aparkatu ordu bat baino gehiagoz, bertzenaz isuna jarriko da. Horrela, plaza inguruan errezago izanen da aparkatzea. Neurri hau martxan paratu zenean jendea ustekabean harrapatu zuen eta haserre bat baino gehiago sortu zuen isuna jasotzerakoan.

federazioaren arabera, saneamendu sareko arketak batetik zetorren isuria, antza, trabatu eta gainezka egin ondotik. Beraz, gertatutakoaren arduraduna Baztango Udala dela salatu du.

Ordezko Euskara Teknikaria

Paula Kasares parlamentari denetik eszedentzian dagoelako, ordezkoteknikaria hauta-

tzeko probak egin berri dituzte Baztango Udalean. Hala, Antsoingo Raul Lopez Ekai da hemendik aitzinera Euskara Teknikaria. Proba hauetara 6 pertsona aurkeztu ziren.

Martiko
Ahatiekietan adituak eta arituak

Martiko Pol Zassan, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625018
Fax: 948 625036
www.martiko.com

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Mena Bereziak

Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 - 948 581 853

BAZTAN

Udako oporrak baliatuz, obrak egin dituzte sei ikastetxetan

Udalak 450.000 euroko inbertsioa egin du lan horiek bideratzeko

Maite OTEIZA

Opor garaia aprobetxatuz Baztango sei ikastetxetan eraberritze lanak egin dituzte udan honetan. Zehazki Amaiur, Irurita, Arizkun, Elizondo eta Erratzuko ikastetxe publikoak eta Baztango Ikastola dira moldatu dituztenak. Aurrekontua 450.000 euro baino gehiagokoa da, eta horren %65a Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak emanen du, 260.357,62 euro, hain zuzen.

Amaiurko eskolan psikomotrizitate gela bat egiteko izan da dirulaguntza (74.014 euroko

aurrekontua eta laguntza 48.109 eurkoa), Iruritan lokal bat ikasgela izateko egokitu da (aurrekontua 36.435 eurokoa izan da eta dirulaguntza 23.683koa), Arizkun behoko solairuan egin dira obrak (80.262 euroko aurrekontuaren erdia baino gehiago hartu da, 52.170 euro). Elizondoko San Francisco Javier ikastetxean itxiera barrutia ordezkatu dute (aurrekontua 88.745 eurokoa, eta laguntza 57.684koa) eta Erratzuko eskola publikoan fatxada pintatu eta estalkia eraberritu dute (121.092 euroko aurrekontutik 78.710 euro



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Dantzari Eguna Iruritan

Abuztuko hirugarren igandean Iruritan Dantzari Egune ospatu zen. Aurten eguraldiak ez zuen lagundu eta dantzak plazan izan beharrean Aranabia frontoian izan ziren. Harmailak beteta, 12:00etan hasita ordu batez herriko 60 dantzari txistularien laguntzarekin (Xavier Ripa, Xavier Urtsun eta Maki eta Cristina Urtsun ahizpak) ikuskizun polita eskaini zuten bertaratu ziren ikusle guztiei. Aipatu behar da, lan guzti hau aintzinerat ateratzeko Maribel San Jose, Isabel Elizaintzin, Pili Urrutia, M^{re} Cruz Goñi eta Amadeori esker izan dela. Iruritan D. Jesus Jaimerenaren garaitik, bere lan haundiari esker, pilota (laxoa, erremontea, Joko-garbi...), musika eta dantzariak izan dira beti eta sendotu egin dira gaur artio. Eguerdian ehun lagun bildu ziren zikiro-jatean, giro ederrean Mendiberri akordiolariarekin. Ikasturtean dantza ikastaroa izanen da, bai mutiln bai neska, interesa duenak Maribelekin harremanetan paratu.

hartu dira). Baztan Ikastolaren kasuan beharrak eta proiektuak haun-

diagoak izan arren, behar gehiena zuten baztuzuk egin behar izan di-

tuzte. Izan ere, kasu hauetan ez da laguntzarik jasotzen.

POTTOKI
 Pottokiri Plaza, 5-11 lehea
 31700 ELIZONDO (Lafuente)
 Tfno: 948 581 583
 www.pottoki.com
 ed@pottoki.com
 Aholkularitza lehiaketa:
 9:30 - 15:30
 16:30 - 20:00

Maderas
GOMEN
 Tel: 948 580 645
 Zaldubia Industrialdea
 IRURITA

- Era guzietako ateak, janbak eta reguesoak
- Egur idorrek: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak, izeiak...
- Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...
- Tableroa: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

BAZTAN
 zurgindegia

- B Kanpoko ate eta leihoak: egurra, PVC eta aluminioan
- B Tarima, parket flotatzailea eta ate jartzea
- B Armairu enpotratuak
- B Sukalde eta bainugelarako altzariak

PREZIO LEHIAKORRAK
 Santiago, 27 - 4 • 31700 ELIZONDO
 T. 948 580 289 • F. 948 452 367
 M. 649 438 210

BAZTAN

Elbeteko Gurutze Sainduaren bestak irailaren 13tik 16ra

Igande arratsean gps-a, minikadena eta bi gasna zozketatuko dira

Ortzegune 13

18:00etan suziria eta ezkil jotzea. 21:00etan Baztan zopak herriko posadan (txartelak ostatuan). 00:00etan txopo goratzea. Ondotik dantzaldia FRANZIS-KOrekin.

Ortzileria 14 Gurutze Sainduaren Eguna

09:00etan argisoinuek. 11:30ean Meza Nagusia. Ondotik herrikoendako luntxa. 18:00etan bat-bateko mus eta partxis txapelketa. 20:00etatik 22:00ak artio dantzaldia NEKANE ETA ESTITXU trikitilariekin. 22:00etan mutil dantzak. 23:00etatik 01:00 arte rock kontzertua: Black dream, Kalapite... 00:00etatik aitzinera dantzaldia FIDELekin.

Launbeta 15 Zikiro Egune

09:00etan argisoinuek. 14:00etan zikiro

jatia. Xalbadorrek bere kantu zaharrekin alaituta (txartelak Elbeteko ostatuan eta Karrika ostatuan salgai. Oharra: bakoitzak bere platera, tenedorea eta nabalagan beharko ditu). 20:00etatik 22:00ak artio dantzaldia XALBADOR MADARIAGArekin. 22:00etan mutil dantzak. 00:00etatik aitzinera dantzaldia TRIKIDANTZ taldearekin.

Igendia 16 Haurren Egune

09:00etan argisoinuek. 17:00etan Gorriti eta bere animaliak. Ondotik txokolatada. 20:00etatik 22:00 arte dantzaldia FIDELekin. 22:00etan zozketa: gps, minikadena eta bi gasnen zozketa. 22:30etan GAIZUA NI.

ARTXIBOA

Goian orain urte batzuetako herri bazkaria ageri da. Beheitikoa, berriz, duela 38 urteko Baztandarren Biltzarrekoa da.



HOSTEL RESTAURANTE JATETXEA

ELBETEKO POSADA

Eguneko Menuak
Aste hondarretan kartea
Expresu otorruak,
famili hitzarak, botailok...

web-orria:
www.posadafitza.com
e-mail:
info@posadafitza.com

7 habitaciones rusticas con baño
ZONA ROPEADA DE NATURALLEZA

Karrikaunuti karrika • ELBETE
JATETXEA-Tel. 948 581383 • HOSTALA-Tel. 948 581519

OÑASKA ERRETEGIA

BEREZITASUNAK :
Betiko euskal sukaldaritza
Haragiak eta arraiak brasan

ASTEBURU - JAI EGUNETAN:
Pittike errea
ETXEKO POSTREAK

Bagordiko bidea • ELBETE • 948 452 088

Carlos Garaikoetxea
Etxenike
abokatu

Tfno.: 948 581 463
Mug.: 630 354 818

Santiago, 59 2C
ELIZONDO

ZUGARRAMURDI

Herriko lezeak sustatzeko kanpaina berria paratu dute martxan

‘Lur azpia mugarik gabe’ kanpaina Euskal Herriko hainbat lezek parte hartzen dute

Margari eta Koro

Zugarramurdiko lezeek Euskal Herriko bortz lezeekin batera (Sarakoak, Urdazubi-koak, Astizekoak, Oñatikoak eta Karrantzakoak) *Lur azpia mugarik gabepromozioa* jarri dute martxan. Honen arabera, leze hauek ezagutu nahi dituenari liburuxka bat emanen zaio %20ko deskontua izan ahal izateko. Liburuxka seilatzen joanen da lezeak ikusi ahala, eta azkeneko lezean opari bat izanen du. Promozio honek ez du balioko uda eta Aste Saindurako.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Abuztuaren 23ko euriteak berriz ere arazoak sortu zituen hainbat tokitan: lezeak arratsaldez itxi behar izan ziren erreka zubi gainetik pasatu zelako, eta Beskorreako errekek ere berriz gaindizka egin zuen. Argazkia maiatzeko uholdetakoa da.

Museoaren arrakasta

Uztailaren 20an irekizien Sorginen Museoaren arrakasta pullita izaten ari da. Orain arteko egun

bisitatuenak abuztuaren 15a eta 17a izan dira, bakoitzean 300 lagun hurbil pasatu baitziren. Aipatu, uztaila hondar

arte Xareta, Baztan, Malerreka eta Bortzirietakoek sarrera erdi prezioan izan zutela (berez lau euro balio du).

Bestetako zenbaki sarituak

Herriko bestetako rifa sarituen zenbakiak hauek dira: lehenbizi-

koa 1030 (Donostiako La Perla Talasoterapiarako bi sarrera); bigarrena 932 (Home-zinema bat), eta hirugarren saria 1052 izan da (Kutxa sorpresa). Lehenbiziko eta hirugarren zenbaki sarituak Urdazubiko Montxo ostatuan salduak dira, eta bigarrena Zugarramurdiko Marixan ostatuan.

Erakusketa berria Urdazubin

Dagoeneko ikusgai daude Dominique Duplantier artistaren lanak Urdazubin. Erakusketak abuztuaren 22an ireki zituen atean eta azaroaren 11 bitarte egonen da zabalik. Artistak *Diseinuen 30 urte* izenarekin bataiatu du aipatu erakusketa.

ARMUA
Jatetxea
Tel: 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3. km
URDAZUBI

SOULE
Izola artisa
Tfno: 948 453 444
Mug: 948 453 503
URDAZUBI

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 590 313
ELIZONDO

Ark_b arkitektura bulegoa
Eraikuntza
Hirigintza
Lidol-ehokularitza
Celia Lana Ranz
Huarze Gotzai 7 - 31880 Leiza
645008478 tel

BAR-OSTATUA MON
ZATOZTE TRAGOA EDATERA
ESTANCO - TABERCO DENDZ
ANZAN-BORDZ
VRDIX - VRDIZVBI

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA
300m perfume markarik ezagunenekin, usain onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hobereak
EGUNERO IREKIA
Tel: (0034) 948 599 400 - URDAZUBI

SARA

Herriko bestak buruilaren 8tik 12ra

Besta batzorde berriak orain arteko ereduarekin segitzea erabaki du, aldaketa batzuekin

Larunbata 8

17:00etan Sara korrrika, 12 kilometroko lasterketa. **22:00etan** kontzertua UNE eta NO RELAX taldeekin. **00:00etan** dantzaldia KOLOKA taldearekin. **Gau guzian** Iparraldeko gaiteroak eta txaranga.

Igandea 9

10:00etan Meza nagusia Urriñarrak kliakerekin, eta ondotik, dandorrada Mariñelak taldearekin. **10:30ean** Luzean errebotean Azkaindarrak Bat Endaiarrrak taldearen kontra. **16:30ean** erraldioen desfilea gaiteroekin, joldunak eta karrozen desfilea. Ondotik herri kirolak: orga altzatzea, aizkora Koxe Bikondoa-

rekin, Iñaki eta Inaxio Perurena harri-jasotzaileak. **18:30ean** trinketea Pleka Sariaren lehen finalerdia: Bielle eta Ezkurra II.a, Larretxea eta Etchetoren aurka. **19:00etan** aperitifia Sarako Kantarik taldearekin. **22:00etan** TAPIA ETA LETURIAren emanaldia. **23:30ean** dantzaldia GAUBELA taldearekin. **00:00etan** gau guzian SPEIZ MUKAKI taldeak karrikak animatuko ditu.

Astlehena 10

10:00etan itzulin itzuli gaitero eta txistulariekin. **10:30ean** luzean errebotean Uztaritzeko Kapito Harri eta Donibane Lohizuneko Luzaz Gazte taldeen artean.



ARTXIBOA

Urtero bezala txaranga eta fanfarreak giroa alaitzen ibiliko dira herrian.

13:30ean zikirojatea Olhain ikastolak antolatuta. **16:30ean** Artzain zakur txapelketa. **18:30ean** euskal dantzak Zazpiak Bat taldearekin. Trinketea, Pleka Sariaren bigarren finalerdia: Alfaro eta Oçafraín, Waltari eta Kurutcharryren aurka. **20:00etan** aperitifia trikitilarietara. **22:00etan** kantaldia IZARRAK taldearekin. **23:00etan** dantzaldia AISTRIKA taldearekin. **Gau guzian** INCONITOS txaranga karrikak animatuko ditu.

Asteartea 11

09:30ean itzulin itzuli gaitero eta txistulariekin. **9:30ean** pasaka txapelketa trinketea, Mattin Arrietaren jubi-

leua. **10:30ean** luzean errebotean Hazparneko Noizbait Senpereko Spuc taldearen aurka. **17:30ean** errebotean joko garbi partidak: lehenik herriko gazteen artean, eta ondotik, Noizbait taldea Luzaz Gazte taldearen aurka. **19:00etan** mutxikoak KUXKUXTU txaranga-rekin. **20:00etan** gau mozorrotoa, aurtengo gaia hori kolorea. **20:30ean** aperitifia trikitilarietara. **22:00etan** dantzaldia ENTZUN taldearekin. **Gau guzian** KUXKUXTU txaranga.

Asteazkena 12

09:00etan itzulin itzuli gaitero eta txistulariekin. **9:00etan** Trinketea Zabaldeian, Sarako azienda lehiaketa.

10:30ean puzgarriak plazan. Trinketea, Pleka Xoko Txapelketako finalerdia gurutzatuak. **17:00etan** frontoian Aguerre eta Urrutigaray, Saint Esteben eta Maitiaren aurka esku huskan. **18:30ean** Trinketea Pleka sariko finala. **Goizean** trinketea eta **arratsaldean** plazan bertso saioa: Julen Zelaieta, Xabier Silveira, Mizel Mateo eta Jokin Uranga. **19:30ean** Aperitifia ATZO DA BIHAR taldeak alaiturik. **22:00etan** dantzaldia EZTIKI taldearekin. **23:30ean** su artifizialak. **00:30ean** XITOAK taldearekin dantzaldia. **Gau guzian** LOS INCANSABLES txaranga karrikak animatzen.

BECKERA. ARTISAUTAN GIBARRITUTAN IZUEN ZERRITZUK.

Hau adiskidetasun
handi eta luze baten
hasiera izaten
ahal da...



...ZUREKIN, IZAN ERE, ZU ZARA FILM HONEN PROTAGONISTA: BECKERA. DEKORAZIOA, AGERRALDIAK ETA LAGUNTZAILEAK HAUTATU BESTERIK EZ DUZU EGIN BEHAR, GAINERAKO IZARREZ GU GEU ARDURATUKO GARA. IZAR HORIEK EZ DIRA AGERI GURE HOTELEN ETA JATETKEEN ATEETAN, BARNEALDEAN BAIZIK: GURE SUKALDARIAK, OSTALARIAK... DIRA. EZAGUTZEN BADITUZU, ADISKIDETASUN HANDI ETA LUZE BATEN HASIERA IZANGO DA.


Beckera

T 945 291 327 • info@beckera.com • www.beckera.com

SARA

Grégory Agirrek irabazi du hirugarren aldiz segidan Xoko Txapelketa

Sebastien Telletxeak saratarren ohorea salbatu du lehen mailako txapelketan nagusituz

Xan HARRIAGUE

Iaz bezala Pleka trinketeak XI. aldiz antolatu zuen Xoko txapelketan, bi urruñar izan ziren mailaz kanpoko finalean: batetik Grégory Agirre, eta bertetik, Patrick de Ezkurra. Aitzineko bi urteetan bezala Grégoryk txapelketa bere egin zuen herrikidea 30 eta 22 menean hartuz. Hirugarren aldiz segidan irabazten zuelako denbora berean Oronoz saria eskuratu zuen urruñarrak. Lehen mailan, Sébastien Telletxea Uztaritzeko Eric Cachenauderen kontra aritu zen eta partida orekatu baten ondotik saratarrak irabazi zuen. Bigarren mailako A multzoan, finala Milafrangako Patxi Oronoz eta Kanboko Battitte Dibarren artean jokatu zen. Lehena 30 eta 27 nagusitu zen. Maila bereko B multzoan Donibane Lohitzuneko Amaiur Alfaroak irabazi zuen txapelketa finalean Urruñako Ivan Camouren kontra 30 eta 24 irabaziz. Hirugarren mailako finalean herriko ordezkari bat izan genuen finalean, Jean Michel Ondicola. Zoritxarrez, egun horretan bera baino ho-

beikiago aritu zen Battitte Berasategiren kontra amore eman behar izan zuen 30 eta 16. Finalak jokatu ondotik usaian bezala pilotari guziak bazkari eder baten inguruan bildu ziren.

«Hemen 'JAO' landarerik ez» kartelak

«Hemen 'JAO' landarerik ez» panoak eman dituzte herriko sarreretan. Hauekin Saran Genetikoki Aldatutako Organismoak dituen landarerik ez daudela jakinarazi nahi dute herrian sartzen direnei. Duela bortsu urte kontseiluak hauen kontrako deliberazioa hartu zuen, baina prefetak ez zuen onartu horren erabakitzeari ez zegoikiola iritzita, eta orduan mozio gisa pasarazi zuten.

Errealeko peña Saran

Hamabost bat lagunez osatutako talde baten Peñaplata-Axuri Urdin izeneko Errealeko Ipar Euskal Herriko lehen peña sortu du herriko trinketean. Hunen presidentea den Patxi Dutournieren arabera, hasiera batean, errealezaleen bilgune bat sortu nahi dute, partidak el-



2007ko Xoko txapelketako irabazleak eta antolatzaileak

ARGAZKIA: X. HARRIAGUE



ARGAZKIA: X. HARRIAGUE

Istripua Larrungo mazelatan

Agorrilaren 20an helikoptero istripu larria izan litekeena guttigatik saihestu zuten Larrungo mazelatan. Halere, eragindako kalteengatik trenak geldirik egon behar izan zuen, zauritua zegoen pertsona baten bila zebilen jendarmeriaren helikopteroak trenaren argi indarreko hariak jo zituen pilotuaren hutsegite baten ondorioz. Hari bat moztu bazuen ere, helikopteroa ez zen erori, baina hegalak hondatuak zituela larrialdiko lurreratzea egin behar izan zuen Azkaineko hilerritik hurbil. Zorionez gertaera zauritu gehiagorik gabe bukatu zen. Ezbeharrak gertatzean, 15:00ak aldean, 150 bat turista zeuden Larrun kasakoan. Hauen jausteko treneko langileek behin-behineko konponketa egin zuten, eta 18:00etarako denak San Inazioen zeuden. Argi indarreko hariak behar den bezala arrimatzeke langileak orduak pasatu zituzten, eta astearte eguerdian trafikoa normaltasunera itzuli zen.

garrekin begiratu ahal izateko, eta noizbehinka elkarren artean afarien egiteko. Haratago joanez, bazkide direnen arteko harremanak lotu nahi dituzte, eta bazkide izan nahi dutenei no-

la egin zehaztu. Mementukotz inaugurazio besta prestatzen ari dira baita udazkenerako seinakako futbol txapelketa bat ere, Gipuzkoako bertze peña batzuk gomitatuz.



SENPERE

Bi urte pasako dira karrika nagusiak hain beharrezkoa duen saihebidia izan arte

Uholdeen ondotik hetsia egon den supermerkatua laster irekiko da berriz

Franck DOLOSOR

Lurralde Antolaketa Herri Batzordea sortzen ari da herriko saihebidia egiteko, Paueko Kontseilu Nagusiak aginduta. Barnean interes arrunt desberdinak dituzten lagunak izan dira: laborariak, lurjabeak, ekologistak, funtzionarioak, herriko hautetsiak eta departamenduko ordezkariak. Batzordea 2008ko urtarrilean hasten ahaliko da lanean. Bozketa sekretu baten bidez, herriko kontseiluak Dokhelar, Leizagoyen, Larretchea, Tapia eta Besonart jaunak hautatu ditu eraikiak ez diren lurren ordezkari gisa. Batzordean Michel Lahetjuzan, Martxel Arribilaga eta Guillaume Bergara kontseilariak or-

dezkatuko dute herriko kontseilua. Paueko kontseilu nagusiak jakiterat eman du saihebidia eta behar dituen bi zubiak eginen direla eta Luberriako urtegia prest izanen dela. Gauzak diren bezala, bi urtez egon beharko da oraino herriko karrika nagusiak hain beharrezkoa duen saihebidia egina izan arte.

Uholdeei aitzin egiteko 205 txeke banatu dira

Herriko 205 familiak 400 euroko txeke bat izan dute berriki maiatzaren 4ko uholdeetan jasan zituzten kalteei buru egiteko. Herriak Barnier fondoan laguntza ere galdetuko du, osoki edo partez hetsiak



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Berriz ere euriteak

Gan den agorrilaren 23an beldur handia izan zen Senperen. Urak atera ziren berriz. Bidea moztua izan zen Cherchebruitan Ustegabea ondoan. Maiatzaren 4ko uholde handien aldean, kalte guti izan zen baina herriko bi saltegitan, harategi batean eta tabako saltokian, ura izan zuten berriz.

izan diren akanpalekuei kalte ordainak eman ahal izateko.

Bertzalde, uholdeek kalte handiak sortu zituzten herriko supermerkatu batean eta geroztik bere atea hetsiak izan dira. Uda huntan, lan handiak egin dituzte dena arrimatzeke. Iduz, buruilaren 10a inguruan irekiko da berriz ere saltoki hau. Jabeak dio urteko negozio zifraren erdia bederen galdu dutela. Maiatza eta buruila artean ibiltzen da jende gehien supermerkatuan.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Senper familiak 30 urte aurten

Aurten 30 urte bete dituzten senpertarrek eta beren lagunak elgarretaratzea egin zuten uztailean La Nivellean ostatuan.

ZDANSA
MARKA GUZTEN KONPONKETA
 Banarta: 2 - Alkalaga Industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
 Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Bittiria, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Faxa: 948 637 050
BURLATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Faxa: 948 133 713

EZKONTZAK

Felipe Etxeberria Goñi eta **Yolanda Gragerena Saldias**, Beintza-Labaiengoa eta Urrozkoa, uztailearen 21ean Urrotzen.

Jose M^a Garaikoetxea Iturriria eta **Amaia Urroz Juanco**, Lekarozkoa eta Beintza-Labaiengoa, uztailearen 7an Beintza-Labaienen. **Eduvigis Elgorriaga Urrutia** eta **Sergio Rosillo Zulueta**, Irun eta Donostiakoa, agorriaren 14an Zugarramurdin.

Juan Ignacio Azpiroz Martiarena eta **Ainara Hernandez Cabeza**, Lekunberrikoa eta Leitzakoa, uztailearen 28an Leitzan.

Aitor Zugarramurdi Agirre eta **Miren Lore Barinaga-Rementería Zabaleta**, Sunbilla eta Leitzakoa, abuztuaren 4an Leitzan.

Ander Elizondo Etxegia eta **Uxue Sagastibeltza Sestorain**, Urrotz eta Leitzakoa, abuztuaren 4an Leitzan.

Ignacio M^a Alfredo Perez de Arriluzea eta **M^a del Carmen Balenzuela Conthe**, Donostia eta Madrilgoa, abuztuaren 3an Elizondon.

Daniel Etxeberria Iturbide eta **Maite Irigoien Casado**, Arizkun eta Elizondokoa, abuztuaren 4an Arizkunen.

Pedro M^a Pardo Alonso eta **Nadia Woppelemann Picher**, Donostia eta Irungoa, uztailearen 7an Beran.

Iñigo Otaegi Biantxi eta **M^a Jose Gomez Yanci**, Donostia eta Berakoa, abuztuaren 18an Beran.

Iñigo Rodriguez Larretxea eta **Mirentxu Irigoien Irigoien**, Lesakakoak uztailearen 21ean Lesakan.

Pedro M^a Mitxelena Otxandorena eta **Maiete Terreros Labin**, Irun eta Lesakakoa, uztailearen 28an Lesakan.

Jorge Iparragirre Gomez Lorena eta **Pidal Roa**, Irungoak, uztailearen 28an Etxalarren.

Ruben Iriarte Beorlegi eta **M^a Arantzazu Arribillaga Garaikoetxea**, Iruñekoa eta Irungoa, ekainaren 30ean Igantzin.

Xabier Lazkano Mariezkurrena eta **Lurdes Alzuri Ibarra**, Leizta eta Sunbillakoa, uztailearen 14an Sunbillan.

SORTZEAK

Hodei Iriarte Jauregi, Donamariakoa, uztailearen 18an.

Mikel Claeys Iturria, Zugarramurdikoa, uztailearen 27an.

Irati Arburua Azkarate, Urdazubikoa, agorriaren 8an.

Izar Ansorena Astibia, Leitzakoa, uztailearen 19an.

June Diez Zabala, Leitzakoa, uztailearen 27an.

Maddi Saralegi Urrutia, Leitzakoa, uztailearen 30ean.

Alex Amor Bermudez, Leitzakoa, abuztuaren 7an.

Miren Arraztoa Garbalena, Gartzaingoa, uztailearen 24an.

Auza Iparragirre Iturzaeta, Elizondokoa, uztailearen 31n.

Jara Urrutia Mariezkurrena, Elbetekoa, uztailearen 31n.

Ekai Maritorea Apezetxe, Elizondokoa, abuztuaren 1ean.

Oier Juanikotena Calleja, Elizondokoa, abuztuaren 8an.

Mikele Jubera Idoate, Lekarozkoa, abuztuaren 14an.

Haritz Bidegain Elizalde, Arizkungoa, abuztuaren 15ean.

Iraide Iturregi Zelaieta, Elizondokoa, abuztuaren 18an.

Xanti Agirre Gonzalez, Berakoa, uztailearen 30ean.

Alejo Martin Gopez Etxelet, Berakoa, abuztuaren 13an.

Nahia Etxepare Bibanko, Berakoa, abuztuaren 17an.

Rakel Telletxea Perez, Berakoa, abuztuaren 14an.

Maddi Asiain Apezetxea, Goizuetakoa, abuztuaren 4an.

Fermin Bertiz Arrieta, Lesakakoa, abuztuaren 12an.

Oihan Goia Simon, Lesakakoa, abuztuaren 17an.

Alejandro Cipriano Irigoien Telletxea, Doneztebekoa, uztailearen 28an.

Igone Ganboa Antzizar, Doneztebekoa, abuztuaren 11n.

Nerea Apezetxea Goñi, Doneztebekoa, abuztuaren 18an.

Alaine Uharte Juanotena, Nartartekoa, uztailearen 24an.

Olaia Uharte Juanotena, Nartartekoa, uztailearen 24an.

HERIOTZAK

Antonio Arretxe Etxeberria, Elizondokoa, uztailearen 22an, 93 urte.

Carmen Etxenike Agerrebere, Gartzaingoa, abuztuaren 9an, 93 urte.

Dolores Otxandorena Mikelarena, Ezkurrakoa, uztailearen 17an, 83 urte.

Mariano Gonzalez Sanjurjo, Sunbillakoa, uztailearen 18an, 88 urte.

Encarnacion Altzugarai Portu, Lesakakoa, uztailearen 19an, 81 urte.

Alberto Peña Iturria, Donostiakoa, uztailearen 22an, 64 urte.

Felix Sarasola Marin, Doneztebekoa, uztailearen 25ean, 85 urte.

Maria Zaldia Bidegain, Arizkungoa, uztailearen 28an, 84 urte.

Juan Mari Apezetxea Perurena, Goizuetakoa, uztailearen 30ean, 81 urte.

Josefina Larraiotz Zarranz, Elizondon, uztailearen 31n, 93 urte.

Serapio Ibarra Irigoien, Sunbillakoa, abuztuaren 1ean, 79 urte.

Eustasio Perez Kintana, Nartartekoa, abuztuaren 2an, 61 urte.

Severiano Urroz Saldias, Elgorriagakoa, abuztuaren 2an, 92 urte.

Encarnacion Meoki Iriarte, Elbetekoa, abuztuaren 2an, 83 urte.

Maria Azpiroz Bengoetxea, Leitzakoa, abuztuaren 3an, 75 urte.

M^a Teresa Eraso Alduntzin, Doneztebekoa, abuztuaren 6an, 95 urte.

Felisa Larrañeta Maizterra, Berakoa, abuztuaren 7an, 95 urte.

Jesus Buldain Rekondo, Leitzakoa, abuztuaren 9an, 60 urte.

M^a Josefa Alzuri Almandoz, Arantzakoa, abuztuaren 9an, 55 urte.

Veronica Eugi Arrieta, Elizondokoa, abuztuaren 10ean, 94 urte.


Francisca Otxoteko Martiarena, Lesakakoa, abuztuaren 14an, 86 urte.

Bautista Loarte Elizalde, Elizondokoa, abuztuaren 15ean, 76 urte.

Jose Luis Salaberri Bulman, Oronoz-Mugairikoa, abuztuaren 16an, 60 urte.

Jorge Arretxea Iriarte, Sunbillakoa, abuztuaren 23an, 84 urte.

Joakin Ibañen saralegi, Leitzakoa, abuztuaren 26an, 55 urte.



Encarnacion ALZUGARAY PORTU

Lesakan hil zen 2007ko uztailearen 19an, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren bedeinkapena hartu ondotik

GOIAN BEGO

*Zure magalean hazi garenok
bihotza negarrez dugu
eta zure irrifarra beti
bihotzean eramango dugu*

FAMILIA



Jose Luis SALAVERRI BULMAN

Oronoz-Mugairin, 2007ko abuztuaren 16an

*Gure ondotik eraman zintuen
gaixotasun maltzur eta latz batek.
Astindu asko jaso eta guztiei aurre
egiten saiatu arren azkenean zoritxarrerako
eguna iritsi zen.*

*Elkarrengandik urrun gauden arren
guk maite zaitugu
eta maiteko zaitugu gaur eta beti.*

FAMILIA

Rekordatorioak

egiten ditugu



*Nahi duzun argazki eta
testuarekin prestatua*

KULTURKARI • Andutzeta 12, Etxalar
Tfnoa: 948 63 54 58

DATUAK...

- Mikel Olazabal Caballero Aresoko aurrelariak abuztuaren 13an egin zuen debuta profesionalean Leitzan, Asperekin. Apeztegia lagun, 22 eta 14 irabazi zioten Apeztegia eta Galartza VI.ari.

- 21 urte beteko ditu irailaren 15ean. Eskumuturreko lesio baten ondorioz 17 hilabetetan pilotan aritu gabe egon zen, baina orain guztiz osatua dago eta profesionalean aritzeko ilusioz.

- Profesionaltarako saltoa egin arren, ikasten segitzen du. Mekaniko moduloa egina du, eta orain elektrizitatea-rena egiten ari da.



UTZITAKO ARGAZKIA

Mikel OLAZABAL *Aresoko pilotari profesional berria*

«Momentuan gozatu behar da, egun batetik bestera dena izorratu daiteke»

Gurutze PIKABEA

Kontent egoteko arrazoirik ez zaio falta Mikel Olazabal Aresoko pilotari gazteari. Leitzako taldearekin Nafarroako eta Euskal Herriko txapela jantzi ondotik erran baitio adio afizionatu mailari, eta berehala Asperekin debutatu du: «10 urterekin Leitzako pilota eskolan hasi nintzen eta beraiekin afizionatuetak azken txapelketak irabazteak poz handia eman dit. Orain Asperekin lau urterako kontratua sinatzeak ilusio ikaragarria egin dit». Herriko pilota eskolaz ere ez da atzendu, eta lehen pilotakadak bertan eman zituela ere gaineratu digu.

Lesioak tarteko, sufritzen ere badaki Mikelek. 17 urterekin eskumuturra hautsi eta 17 hilabetetan pilotan aritu gabe egon zen. Horrek hamaika buruhauste sortu dizkiola aitortu digu: «Operatu aurretik zortzi hilabetez egon nintzen geldirik, gero operatu eta beste bederatzi hilabetez. 17 hilabeteak luze egin zitzaizkidan, batez ere, operatu ondo-

«Eskumuturra hautsita 17 hilabetez geldirik egon nintzen eta buruari buelta asko eman nizkion. Pilotan segitzeko aukerarik izango nuen ere ez nekien, eta ikara handia»

ko denboraldia. Buruari buelta asko eman nizkion, eskumuturra ongi zihola esaten zidan medikuak baina nik ez nuen hala sentitzen. Ez nekien pilotan segitzeko aukerarik izango nuen ere, eta ikara handia. Errekuperatuta lehengo jokoa berreskuratu nahian ere asko sufritu zuela azaldu digu: «Berritua pilotan hasi nintzenean, ez nuen batere jokorik, ahaztua nuen. Bi egunetan mundua jan nahi izaten da, eta ez da horrela, egunegonean egin behar da». Berak dioen bezala, «poliki-poliki», baina sasoa berreskuratu du aresoarrak, eta ez hori bakarrik, partida bikainarekin ekin zion profesional bi-

deari. Leitzako frontoia jendez gainezka zegoela, herritar eta lagun aunitzen aitzinean egin zuen debuta Mikelek. Partida hura jokatu aitzinetik urduri ote zegoen galdetuta zera erantzun digu: «aste osoan partida burutik ezin kenduz ibili nintzen, egunez ongi nongoen, baina gauetan, lotara joatean, buruari bueltaka hasten nintzen. Egun berean, goizean mendira joan eta ez nintzen ongi sentitzen, baina arratsaldean lasai sentitu nintzen, baita partida jokatzerakoan ere. Aresotik eta Leitzatik jende asko joatekoa zela jakiteak ilusio handia egiten zidan, baina, bestetik horrelakoetan ongi jokatu nahi izaten da eta horrek nerbioak baino, kezka sortzen du». Azkenean itxura ona eman zuen Leitzan, jendea gustora utzi zuen, baita bere burua ere.

Gaztea da oraindik Mikel eta aukera handiak ditu. Bere dohaiak nabarmentzeko eskatuta, ordea, «hori beste batek egitea nahiago dut», erantzun digu.

MENDIA

Berriz ere Etxegarai garaile Sarako Kontrabandisten lasterketan

Emakumezkoetan Maika Ariztegi nagusitu zen

ttipi-ttapa

Aurten ere Fernando Etxegarai nagusitu da Sarako Kontrabandisten lasterketan. 9 kilometroko ibilbidea egiteko 38 minutu eta 36 segundo behar izan zituen. Bigarrena ere, iaz bezala, Patxi Irazzoki igantziarra izan zen 40 minutu eta segundo bateko denborarekin. Hortaz, taldeka ere garai-kurra Bera aldera joan zen. Iñigo Lasaga etxalartarrak 43 minututan bukatu zuen, eta horrela podiumeko 3. eskailerara igo zen.

Emakumezkoetan Iturengo Maika Ariztegi izan zen azkarrena. 54 minutu eta 46 segundo behar izan zituen ibilbidea bukatzeko. Ibilbideak dituen lehen kilometro eta erdian eta azken 500 metroan lasterkariak zakuak eramane behar izaten dituzte, 4 kilokoak emakumeek eta 8koak gizonezkoek. Errekorrari dagokionez aurten ez zen hunkitu eta Fernando Etxegaraiak iazko lasterketan egindakoak bere horretan segitzen du (38:36).

Aurtengo lasterketa-ko lehen biak berehala nabarmendu ziren eta zakua uztean dagoneko minutu erdiko aldean kendua zieten ondokoei. Zazpi Fagotara ailegatzean, lehena Fernando izan zen eta metro guttitara pasatu zen Patxi. Jaisterakoan, be-



ARGAZKIAK: LEGARRA

Parte hartu zuten lasterkari batzuk. Azpian hiru lehen sailkatuak.

ratarra hobeki ibili zen eta alde handitzea lortu zuen. Iñigo Lasagak ere jaitziera polita egin zuen eta horri esker hirugarren postua eskuratu zuen.

Aurten parte hartu ez badu ere, Ramuntxo Lamothek ditu orain arteko garaipen gehienak, bortz aldiz irabazita, 2000n, 2001ean, 2002an, 2003an eta 2004an. Ondotik, Ezpeletako Gabi Etxart eta Irungo Ricardo Toro dator, bakoitza lau garaipenekin. Hiru garaipen dituztenak bertze hiru dira eta horietariko bat da Fernando Etxegarai beratarra. Bertze biak Sarako Michel Larzabal eta Lesakako Julian Mitxelena dira. Parte hartze gehien dituztenak, berriz, bi dira, Ricardo Toro eta Michel Lartigau.



SAILKAPENA

| | |
|--------------------------------|-------|
| 1. Fernando Etxegarai | 38:52 |
| 2. Patxi Irazzoki | 40:01 |
| 3. Iñigo Lasaga | 43:00 |
| 4. Jean Laxague | 43:26 |
| 5. Iñaki Lopetegi | 44:24 |
| 6. Daniel Mehats | 44:38 |
| 7. Beñat St Jean | 44:57 |
| 8. Yannick Dufau | 45:23 |
| 9. Jakes Bernet | 46:01 |
| 10. Xemartin Aucho berry | 46:17 |

Fernando Etxegarai bosgarren gelditu da Mendiko Munduko Kopan

ttipi-ttapa

Maiatzean abiatu tako mendiko lasterketaren Munduko Kopa bukatu da, eta Fernando Etxegarai beratarrek lehendabiziko bortzetan amaitu du. Uztailaren 23an Dolomites Skyracen (Italia) egin zen lasterketako azken saioa eta beratarrek ezin izan zuten sailkapen nagusiko hirugarren postuari eutsi. 550 kirolarik parte hartu zuten guztira, eta 22 kilometroko bidea egin behar izan zuten. Etxegaraiak 2 ordu, 19 minutu eta 23 segundutan egin zuen ibilbidea, irabazlearengandik 14 minutu eta erdira. Italiako proban maila handia erakutsi zuten kirolariek, hala, lehen hiru sailkatuek marka berriak ezarri zituzten. Manttaleko kirolariek ere lan ona egin zuten lasterketan: Igor Agesta 75. sailkatu zen 2 ordu 39 minutu eta 45 segundoko lana egin ondotik, Joxelu Loiarde 76. postuan gelditu zen 2 ordu 29 minutu eta 46 segundoko denborarekin, eta Alfredo Telletxeak 165. lekuan bukatu zuen, 2 ordu 53 minutu eta 56 segundotan.

PILOTA

Iruritak irabazi du aurtengo Baztan-Errekako Laxoa txapelketa

Herrian jokaturako finalean 9 eta 6 irabazi zion Doneztebe A taldeari

ttipi-ttapa

Joan da aurtengo Baztan-Errekako Laxoa Txapelketa ere. XXVIII. edizioa izan da, eta azken txapela Iruritarak jokatzen dira. Abuztuaren 5ean jokatu zen finala Iruritan, eta bertako B taldeak Doneztebe Ari 9 eta 6 irabazi zion.

Hasiera batean doneztebarrak nagusitu ziren jokoan, eta 3-5 aitzinean jarri ziren markagailuan. Baina Iruritak erantzun eta lau tango egin zituen segidan.

Azkenean, txapelka baztandarrentzat. Txapeladunen taldean Joseba eta Gorka Urtasun eta Xabier eta Jesus Etxenike aritu ziren. Azpitxapeladunak, berriz, Felipe Ganboa, Luismi Apezetxea, Patxiku Ganboa eta Juan Mari Anzizar izan ziren.

Bezperan, abuztuaren 4an hirugarren eta laugarren posturako partida jokatu zen. Oitz eta Arraioz aritu ziren norgehiagkoan eta Marrekara joan zen hirugarren postua.



ARGAZKIA: MAITE OTEIZA

Aurtengo finalistak Iruritako plazan.

Hala, azken bi urtetan Doneztebera joan den arren, duela hiru ur-

te bezala, Iruritan da Laxoa Txapelketaren 28. edizioko txapela.

TXAPELDUNAK

| | |
|------------|-----------|
| 1980 | IRURITA |
| 1981 | DONEZTEBE |
| 1982 | DONEZTEBE |
| 1983 | OITZ |
| 1984 | OITZ |
| 1985 | DONEZTEBE |
| 1986 | DONEZTEBE |
| 1987 | DONEZTEBE |
| 1988 | OITZ |
| 1989 | DONEZTEBE |
| 1990 | OITZ |
| 1991 | IRURITA |
| 1992 | DONEZTEBE |
| 1993 | IRURITA |
| 1994 | DONEZTEBE |
| 1995 | DONEZTEBE |
| 1996 | DONEZTEBE |
| 1997 | DONEZTEBE |
| 1998 | DONEZTEBE |
| 1999 | ARRAIOZ |
| 2000 | DONEZTEBE |
| 2001 | ARRAIOZ |
| 2002 | IRURITA |
| 2003 | DONEZTEBE |
| 2004 | IRURITA |
| 2005 | DONEZTEBE |
| 2006 | DONEZTEBE |
| 2007 | IRURITA |



FUTBOLA GUSTOKO DUT

ETA **CANAL+** EN DENA DAUKAT

CANAL+ hilabetean

19,95
€ tik hasita

Orain, eguneko partida bat opari bi hilabetez.

Harpidetza egiteko etorri
BORTZIRIAK
Bidasoa, 45 · BERA
edo 948 630 377ra deitu

DIGITAL+

BORTZIRIAK, S.L.

TXIRRINDULARITZA

Xabier Telletxea igantziarra Espainiako mendi bizikleta jautsierako txapeldun

Miriam Blas beratarra bigarren gelditu zen emakumezkoetan

ttipi-ttapa

Uztailaren 22an jokatu zen Espainiako mendi bizikleta jautsierako proba Kantabrian, eta eskualdeko kirolariek ez zuten hutsik egin. Gizonezkoetan, maila nagusian, Xabier Telletxea igantziarrak lehendabiziko postua lortu zuen, eta emakumezkoetan Miriam Blas beratarra azpitxapeldun gelditu zen. Telletxea eta Blas ziren

faboritoak, eta beratarak txapelketako bere bosgarren txapela lortzerik izan ez bazuen ere, irabazlearengandik 10 ehunenera gelditu zen. Telletxeak, berriz, borts segundoko aldea atera zion bigarren sailkatuari.

Iñigo Yanci beratarra ere han izan zen, 23 urtez azpikoen mailan jokatu zuen, eta guttigatik gelditu zen podiumetik kanpo. Laugarren

helmugaratu zen, irabazlearengandik borts segundora. Maila honetan parte hartu zuen bertze beratarrek, Iñigo Blasek, 17. postua eskuratu zuen.

Maila nagusian Oronoz-Mugairiko Iñaki Esarte 40. sailkatu zen, eta Imanol Retegi igantziarra 61. lekuan.

Bertzalde, leku berean, baina aitzineko egunean, jokatu zen mendi bizikletako kross



ARTXIBOA

Eskualdeko kirolari aunitzek du mendi bizikletan ibiltzeko afizioa.

txapelketa ere, eta honetan Asier Apezetxea aranztarrak parte hartu zuen. 105 parte-hartzaileen artean 20. pos-

tuan gelditu zen maila nagusian. Kadeteetan, berriz, Aitor Begino igantziarra 25. ailegatu zen helmugara.

PILOTA

Leitzarentzat Euskal Herriko Herriarteko Pilota Txapelketa

2-1 irabazi zion Berrizko taldeari

ttipi-ttapa

Uda hasieran aipatu bezala, Leitzako Aurreak Euskal Herriko Herriarteko Pilota Txapelketarako txartela lortu zuen Nafarroako Herriartekoan txapeldun atera ondotik. Ez txartela eskuratu bakarrik, baita irabazi ere. Uztailaren 28an jokatu ziren Arrasaten (Gipuzkoa) txapelketako finalak, eta leitzarrek 2 eta 1 irabazi zieten Berrizko (Bizkaia) pilotariei. Aurrera-

ko pilotariek hiru partidatik bi irabazi zituzten, kadeteen eta senior mailan, eta bizkaitarrek gazteen mailan.

Lehendabiziko partida irabaziz ekin zioten lehiari leitzarrek. Kadeteen mailan Ander Aramburu eta Jon Jaunarenak 22 eta 16 garaitu zituzten Berrizko Loidi eta Urkijo.

Jubeniletan, ordea, ez zuten deus egiterik izan Aurrerakoek. Markagailuak berak halaxe



MIKEL IRIARTEK UTZITAKO ARGAZKIA

Leitzako pilotariak Nafarroako Herriarteko Txapelketa irabazi zutenean. Orduan Uhartea izan zuten arerio eta lau partidetik bina irabazi zuten. Halere, 7 tantoko aldearekin txapela lortu zuten.

adierazi zuen: 22-0 galduta zuten Leitzako Oihan Alduntzin eta Aitor Goinetxeak Alberdi eta Perrosanz bikote bizkaitararen aurka.

Hala, senior mailako azken partida txapela

lortzeko erabakiorra izan zen. Maila honetan, Mikel Olazabal aresoarra eta Mikel Iriarte leitzararitu ziren Berrizko Gonzalez eta Zabalarren kontra. Lehen zatia nahiko parekatua izan

bazen ere, azkenean 8 tantorekin utzi zituzten bizkaitarrak. Horrenbertzez, aurtengo Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketako ez ezik, Euskal Herrikoare Leitzan da.

AGENDA

egunez egun

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

ERAKUSKETAK

URDAZUBI

Abuztuaren 22tik azaroaren 11ra, Dominique Duplantier artistaren lanen erakusketa.

LESACA

Irailaren 23tik 27ra, *Ni ere pertsona* inmigrazioari buruzko erakusketa, Beti Gazten (18:00-20:00).

FERIAK

ELIZONDO

Irailaren 8an, Baztan-Bidasoako artisauen feria, goizetik eguerdira bitarte, Foruen Plazan.

KONTZERTUAK

LESACA

Irailaren 15ean, Gu ta Gutarrak taldearen kontzertua, Onin erreka gainean, 22:30ean.

HITZALDIAK

LESACA

Irailaren 20an, *Zer mundu berri ezagutu eta gozatzeko aukera ematen du euskara ikasteak?* hitzaldia emanen du Joxerra Gartzia, udaltzeko Pleno Aretoan, 19:30ean.

BERTSO AFARIAK

LESACA

Irailaren 22an, bertso afaria GRaren kanporaketa, Lindurenbrda sagardotegian 21:00etan.

HAURRENTZAKO AISIALDIA

LESACA

Irailaren 17an, haurrentzako karaokea Iñigo Etxepare-ekin, 17:00etan Irain Ikastetxean.
Irailaren 19an, Kulki haurrentzako jolasak, 17:00etan Ikastolako patioan.

2007/09/06 • 453. zbk.

TELEBISTAKO TXOKOA



Euskal Artzainak Ameriketara saioa laster ikusgai

Irailaren 10ean hasiko da ttipi-ttapa TBren denboraldia

Oporrak direla eta, abuztuaren 25etik irailaren 9ra urteroko geldaldi teknikoa izan du Ttipi-Ttapa Telebistak. Bi aste horietan, lehendik emititutako erreportaje eta teleaioen errepikapenak programatu dira, eta lankideak atsedenaldia hartu bidenabar, zenbait aparatu eta tresnen urteroko erresioak egiteko aprobeixatu da.

EUSKAL ARTZAINAK AMERIKETAN SAIOAREKIN 16 KAPITULU

Irailaren 10etik aitzinera ohiko programazioak segituko du, nagusiki. Saio berriak ere ikusiko dira, eta horietan aipagarriena, Euskal

Artzainak Ameriketara egitasmoarekin hitzartutako 17 kapituluetatik oraindik emititu gabe diren 16 kapituluak izanen dira. Joan den udaberrian grabatu ziren Ameriketako Estatu Batuetan, eta inguruetatik harat joandako pertsona ugari agertuko dira.

BESTETAKO DVDAK SALGAI

Doneztebe, Lesaca, Bera, Arantzeta eta Etxalarko besten DVDak salgai daude. Interesatuta daudenek nahikoa dute 948 63 54 58 telefonora deitu eta hor azalduko diote nola formalizatu behar den eskaera. Hala, datuak bidu eta postaz bidaliko zaio etxera.

DISKAK



Euskaldünak A CAPELLA

BILDUMA

ELKAR, 2007

A capellan emandako tradizioa, gure lurra-zen ezarririk zerurantz igotzen den otoiaren modukoa da, izpiritua-zen adierazbide. Kantatzeko era hau zailena dugu dudarik gabe, inolako doinu janzkerarik gabe aurkezten baita kantaria eta afera honetan erakusten baitu talentoa, hala nola, ahotsaren kalitatea. Gure herrian, batez ere Iparraldean lantzen den disziplina izanik, honako bilduma honek, batik bat, Iparraldeko kantariak biltzen ditu, egun euskal kantu tradizionalak dituen ahotsik eder eta gorenak nabarmenduz: Niko Etxart, Peio D'Ospital eta Mixel Etxeberri, Erramun Martikorena, Pantxoa eta Peio, Maddi eta Celine Oihenart, Imanol, Etxamendi eta Larralde, Dominika, Jean Borda-xar, Jean Mixel Beda-xagar, Robert Larran-daburu, Aritzak...

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Abuztuaren 17tik abuztuaren 24ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea (19 kilo): 21,00 € (=)

Zerri gizona 1,005 € kiloa. (=)

Zerramak: 0,480 € Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal
Extra 3,92 (+0,15)
1.koa 3,61 (+0,15)
2.koa 3,20 (+0,15)
Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 4,04 (+0,15)
1.koa 3,73 (+0,15)
2.koa 3,30 (+0,15)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg.kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.
Aretze ttikiak (15 egun ingurukoak):
Aretze mestizoak: urruxak 170,00 (=) idixkoak 210,00 (=)

Aretze nabarrak: urruxak 130,00 (=) idixkoak 160,00 (=)
Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,95/3,08
Zaldi-behorrak: 1,73/1,93
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 7,10/7,70
8-10 kilokoak: 5,40/5,20

JAKIN BEHARREKOAK

Nola hezi behar dira seme-alabak behar bezala?

Gaizki portatzean, ez iraindu; bertzelako ekintzak eginarazi

Haurrak ongi portatzen ez direnean, gurasoek nola jokatu jakin behar dute. Seme-alabek arauak behar dituzte eta gurasoengandik zer jasoko duten jakin, hartara ongi portatzeko. Lehenik eta behin, gurasoek euren artean hitz egin eta haurrek zein arau betetzea nahi duten erabaki behar dute, amak zein aitak, biek mezu bera transtimitzeko. Biek arau diferenteak ezartzen badizkiete, umeek ez dute argi edukiko zer den ongi portatzea eta zer gaizki. Horrelakoetan, seme-alabek jarrera eze-gonkorra izateko aukera haundiatzen da. Arauak beti berdinak izan behar dute, eta ez dute gurasoen komenentziaren arabera aldatu behar. Behin arauak erabakitakotan, horiek ez betez ge-



Umeekin momentuak konpartitu behar dira.

ro, ondorioak ekarriko dizkietela argi azaldu behar zaie. Adibidez, «Hauek dira arauak. Ez betez gero hau gertatu da», erratea. Ongi portatu eta arauak errespetatzen baditu, berarekin kontent sentitzen dela erran behar dio gurasoak, hitzez saritu, ez opariek.

Haurrek esperientziarekin ikasten dute. Bazkaltzerakoan jan ordez jolasten ari

bada eta edalontzia botatzen badu, zikinditutakoa garbierazi. Autoestima mindu dezakeen deus ez da erran behar, «ez duzu deus ongi egiten», adibidez. Halakoak erratea kaltegarria da, ez du deustarako balio. Komenigarria den bertze ondorio bat, hala nola, etxeko lanak ez baditu egiten, zerbait berezia egiten ez uztea, DVD bat alokatzea, erraterako.

DIZIPLINA ERAGINKORRA EZARTZEKO ESTRATEGIAK

Arau eraginkorrak ezarri, eta ondorioak haurren egoera eta adinararen arabera izan behar dute.

Errieta ematean ez oihurik egin, ez guttitsi edo ez iraindu.

Argi adierazi haurrak zer egitea nahi den, eta ulertzen duela aseguratu.

Gurasoek ere ongi jokatu behar dute, hori ere kontuan hartuko baitu haurrak.

Malgua izan, eta solasteko prest agertu. Umearen jokabidearen ondorioak bere esku utzi. Ohatze egin berrian saltoka hasten bada, berari eginarazi ohatzea.

Gaizki portatzean ondorioak berehalakoak izan behar dute, eta iraupen txikiak.

Rakel AMIGO

LIBURUAK



Ttantto

Antton KAZABON

IBAIZABAL, 2007

Antton Kazabonen liburu hau 8 urtetik aitzinerako neska-mutikoentzat da, eta dotore antondua dago Andoni Odriozolaren marrazkiekin. Liburuaren izenburua da protagonista: Ttantto. Ttantto pilota bat da, eskuz jokatzen pilotatzen. Gozoetan bizi da eta bertako pilotalekuan igarotzen ditu ordu gehienak. Pilota partidu aunitz daramatza bizkarrean, eta zahartzen ere ari da gizarajoa. Hala ere, oraindik hagitz ongi moldatzen da. Ongi mugitzen

da pilotalekuko atzeko aldean, errebote txokoan, haurrek berarekin jokatzen dutenean. Hagitz pilota ona izandakoa da, eta jabe izan duen pilotariak omenaldi moduko bat egin nahi dio, Ttantto apaingarri bilakatzeko. Bat-batean, zerbaiten beldur da Ttantto, eta hagitz triste jarri da. Zergatik ote? Dena dela, zuregana dator laguntza eske. Lagunduko al diozu? Horrela bada, egin ezazu eskatzen dizuna, eta salbatuko duzu.

Gertaera guztiak ikusteko begiratu: www.ttipi.net (agenda)

BESTAK

ELBETE

Irailaren 13tik 16ra, Gurutze Sainduaren bestak. Xehetasunak 32. orrialdean.

ERATSUN

Irailaren 6tik 9ra, herriko bestak. Xehetasunak 19. orrialdean.

ITZ

Irailaren 7tik 10era, herriko bestak. Xehetasunak 18. orrialdean.

SARA

Buruilaren 8tik 12ra, herriko bestak. Xehetasunak 34. orrialdean.

BERA

Irailaren xtik xera, Illekuetako bestak. Xehetasunak x. orrialdean.

LESAKA

Irailaren 7tik 9ra, Bittiria auzoko bestak.

DONEZTEBE

Irailaren 21etik 23ra, Doneztebeko besta txikiak. Xehetasunak 17. orrialdean.

MENDI ATERALDIAK

ZUGARRAMURDI

Irailaren 9an, Bera-Hendaiara ateraldia antolatatu du Atxuria mendi taldeak.

SUNBILLA

Irailaren 15ean, Candanchu-Hechora ateraldia Ulibeltzak taldearekin.

OSPAKIZUNAK

ITUREN

Irailaren 22an, Joaldunen Eguna egingen da. Xehetasunak 20. orrialdean.

LEGASA

Irailaren 8an eta 9an, Santa Leokadia eguna egingen da ermitan.

VENTANAS ARAMBURU
Ongizate termiko eta akustikoa
Aluminioa egur koloretan

Gabiria, 42 IRUN
Tel.: 943 62 22 57 • Fax.: 943 62 38 11

salgai. Albistur 43. ☎659 609678.

BERA. Bortziriak karrikan 206 m²ko adosatua salgai 300 m²ko eramuarekin eta igerilekuarekin. Hiru solairukoa, txokoa, garagea, 3 logela, 2 komun, egongela... ☎ 665724612.

GARAJEAK/LOKALAK 109 Errentan eman

LESAKA. 77m²ko lokala errentan emateko. Edozein negoziotarako. Bittirian. Egoera onean. ☎618264676.

LESAKA. Bittira 53an garajea errentan emateko. ☎665 741527.

ZERBITZUAK 208 Bertzelakoak

BORDA
PLADUR LANAK

ISOLAMENDUAK
DEKORAZIOA
ERABERRITZEAK
SABAI MODULARRA

Albistur 43-B (ESKAKA)
bor@tipi.net • telefonak.net
Tlfno/Fax: 948 637 546
Mug.: 609 477 477

LANA 301 Eskariak

Emakume bat eskaintzen

Pitti
eskabazloak
Tel: 616 513 491

da jendaurrean lanean aritzeko, komertzioetan, ostatuetan... Zaharrak zaintzen ere lan egiten luke. ☎ 948 637848 / 6367907853.

BORTZIRIAK. Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Euskalduna (9:30-15:30). ☎948634260.

LANA 302 Eskaintzak

LESAKA. Txoferra behar da trailerrarekin ibiltzeko. ☎690 776147.

BERA. Gasolindegian langileak behar dira. ☎948631370.

OITZ. Ostatuan, zerbitzaria eta fregaderan aritzeko langileak behar dira. ☎948451951.

BERA. Auzoa ostatuan zerbitzaria behar da. ☎654 385363.

LESAKA. Asteburuetan zerbitzari lanean aritzeko 2 lagun behar dira Atxaspi Ostatuan. ☎948637536.

DANTXARINEA. Olazelai bentan 2 langile behar dira: jatetxeko zerbitzaria eta sukaldeko laguntzailea. ☎948599051.

BERA. Saltzailea behar da Renault tailerrean lan egiteko. Gidatzeko baimena ezinbertzekoa da. Informatika, euskara eta frantsesa ezagutzak dituena. ☎948 630621.

BERA. Jatetxe batean fregaderan orduka lanean aritzeko norbait behar da. ☎654 385363.

IRUÑA. Neska behar da Iruñeko obradore batean lan egiteko. ☎948 220618.

BERA. Ibardingo benta batean mutila behar da biltegi eta dendan lanean aritzeko. ☎609 480646.

ZUGARRAMURDI. Ostatu eta denda batean lanean aritzeko pertsona behar da. ☎948 599082.

IRUÑA. Neska euskaldun bat behar da 8 urteko umea zaintzeko, bazkalorduetan 12:45etik 15:00etara. Egutegia, irailatik ekainera, Donibane San Juan auzoan. ☎948 177629 (deitu 15:30etik aitzinera).

ELIZONDO. Goizez bi or-

2283 PRODUKTUO € 1en
2283 produktu € 1en

IREKI BERRIA

duz bi haur zaintzeko pertsona bat behar da. ☎948 581341/ 679 613201.

MENDAUR MOTOR 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko autoak:
Mitsubishi DID 3 ate automatikoa eta manuala, Vizara 3-5 ate TD, Opel Astra, Grand Vitara 5 ate, Opel Zafira, Terrano II, Opel Frontera 3-5 ate, Galloper 3-5 atekoa, Galloper Super Exceed 3ate, Montero IO 5 ate, Ibiza, Seat Inca, Citroen C5 eta Almera.
SUZUKIAK ETA VITARRAK AUKERAN

MOTORRA 501 Salerosketak

Seat Panda beltza salgai, mendi inguruan ibiltzeko aproposa. NA-N matrikula. ☎617076614.

TALLERES SANTESTEBAN 948 450282 • DONEZTEBE

AUTO IA BERRIETAN
ESKAITZA ZABALA
(6-12 hilabetekoak)
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic, Laguna, Laguna Grand Tour, Espace.

BIGARRREN ESKUKOAK
Renault I9 Chamade, Kangoo I.9 D (gibeleko aldean itxia), Volkswagen Golf I.9 DTI I10 CV, Citroen ZX I.9 TD, Laguna Grand Tour Privilege 2.2 DCI, Citroen Xsara I.9 TDI.

MOTORRA 502 Tailerrak

ANIMALIAK 602 Salerosketak

Setter Ingeles arrazako zakurkumea salgai. Emea eta hiru koloretakoa. Hiru hilabete ditu. ☎948 630238.

Ardi zakurkumeak oparitzeko. ☎948 635272.

Basurde ehizako zakurkumeak salgai. ☎948450547 / 690197054.

DENETARIK 702 Salerosketak

Mistral turbo50 traktorea salgai, bere desbrozadorearekin. Egoera onean. 350 ordu eginak. ☎666407214.

Ingletadora salgai. ☎606529553.

Astor lineal pianoa salgai. 4 urte ditu eta gutxi erabilia. ☎670385617.

DENETARIK 703 Bertzelakoak

DONEZTEBE. Egurretarako haritz amerikano arbolak eramateko. ☎948 450344/616 055501.

Argazki soilak: 4 €. Bikoitza: 8 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,30€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 4 edo 8 €ko txekoa. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratzeko, bidali kartazala zure helbidearekin.

www.ttipi.net



Goizuetako **IKER MIRANDAK** 7 urte bete ditu uztailearen 10ean. Zorionak eta muxu haundi bat Oier, atta eta amaxoren partetik.



Irungo **NAROA PERURENA VALEROK** 6 urte bete ditu abuztuaren 1ean. Zorionak Iturnen eta Aizoaingo familiaren eta bereziki Janireren partetik.



Irungo **NAROA PERURENA VALEROK** 6 urte bete ditu abuztuaren 1ean. Zorionak etxeko pinpilinpauxari atta, ama eta bereziki Unasen partetik.



MIKEL ALTZURI MAKUSO aurtiztarrak abuztuaren 6an 10 urte bete ditu. Zorionak eta besarkada haundi bat familiaren partetik.



AINARA ALTZURI MAKUSO aurtiztarrak uztailearen 28an 6 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat familia osoaren partetik.




NAROA OTAMENDI ABRIL beratarrik uztailearen 26an 2 urte bete ditu. Zorionak eta muxu haundi bat atta, ama eta bereziki Aneren partetik.



SARA eta **NAROA** beratarrek uztailearen 7an eta 26an urteak bete dituzte. Zorionak familia guztiaren partetik.



Aupa EKAITZ! Arantzako eta Sunbillako familien, atta, ama eta ni Eneiten partetik zorionak. 4 urte jada! Abuztuaren 22an merendola! Ze guay!



Zubietako **AIMAR IRIBARREN JUANIKORENAK** abuztuaren 3an 3 urte bete ditu. Muxu potoloak Zubietako eta Doneztebeko familien eta bereziki Mirariren partetik.



EIDER TABERNA MUTUBERRIA arantzarrak uztailearen 30ean 4 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta muxu haundi bat.



JOSU ELIZONDO GOYAK abuztuaren 15ean 7 urte bete ditu. Zorionak gure kirolariari etxeko partetik.



MADDI eta **JOSETXO SESE AGARA** anai-arrebek 15 eta 5 urte bete dituzte abuztuaren 10 eta 9an. Zorionak familia guztiaren partetik. Ongi pasa eta batez ere, ongi portatu opari aunitz jasotzeko.



Berako **SUPER MANEK** 5 urte bete ditu abuztuaren 9an. Zorionak familia guztiaren partetik, bereziki Arantxa, Maddi, Argi, ama eta attaren partetik.



AIALA SAN JUAN AROZENA beratarrik urtea bete du abuztuaren 12an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



Zugarramurdiko **PETTANEK** 3 urte bete ditu agorriaren 11n. Aunitz urtez maitea! Per molts anys Pettanet! Pottak eta Petons etxeko partetik.



Berako **ENAITZ ERKIZIA LASAGAK** urtea bete du abuztuaren 18an. Zorionak eta muxu haundi bat familia guztiaren partetik.



LANDER LASAGA GOIENETXE etxalartarrak urtea bete du abuztuaren 20an. Zorionak familia guztiaren eta bereziki Miren, Joseba eta Arizzen partetik.



ANE BAZTERRIKA LEGAZKUE ituredarrak abuztuaren 27an 8 urte bete ditu. Zorionak familiaren partetik.




IHINTZA eta **UXIAK** abuztuaren 29an 2 urte bete dituzte. Aunitz urtez eta muxu aunitz ataxi-amaxi, abuela-abuelo eta osaba Manuren partetik. Tarta jatera agertuko gara!



IHINTZA eta **UXIA** gure bi printzesek 2 urte egin dituzte! Muxu haundi bat amaxo eta ataxoren partetik, eta segi beti bezain xaltxerak izaten.



OLATZ PAGOLA ROMANO beratarrik abuztuaren 26an urtea bete du. Muxu haundi gure tikiarentzat aita, ama eta bereziki Nahiaren partetik.



OLATZ PAGOLA ROMANO beratarrik urtea bete du abuztuaren 26an. Muxu haundi bat gure sorginarentzat aitaxi-amaxi eta osaba-izebaren partetik.



IHINTZA eta **UXIA DAGERRE** beratarrik 2 urte bete dituzte abuztuaren 29an. Aunitz urtez eta bi muxu amaxi Leire eta Orti eta Lexuri lagunaren partetik.



JON IPARRAGURRE OLASAGASTI etxalartarrak 9 urte bete ditu irailaren 1ean. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.




Gazteluko **JOSEBA TELLETXEA SARRATEAK** 3 urte bete ditu abuztuaren 31n. Muxu pila bat familia guztiaren partetik. Zorionak moxolo!



GURUTZE FAGOAGA ARIZTEGKI 7 urte bete ditu abuztuaren 31n. Zorionak eta muxu haundi bat zure familia guztiaren partetik.



Zorionak Doneztebeko **OIER BELARRA MARIKURENARI**, abuztuaren 26an 2 urte bete dituelako. Muxu haundi bat Ezkurako familiaren partetik.



ANTON ESKUDEROK 33 urte bete ditu abuztuaren 28an. Muxu haundi bat eta zorionak.



M. ARIZTEGI 58 urte bete ditu abuztuaren 30ean. Zorionak eta muxu haundi bat.



NAGORE MAISTEARRENA ofatiarra erdilekaroztarrak abuztuaren 18an urteak bete ditu. Aunitz urtez eta ongi pasa Katixa, Asier, Onintza eta Naroaren partetik. Ekarri goxokiak.




Zorionak Doneztebe eta Elizondoko **OIER OIARZABAL, AURKENE PERURENA** eta **IRATI OIARZABALI** abuztuaren 3an, 14an eta 23an, 1, 7 eta 5 urte bete dituztelako, zuen guraso eta familiaren partetik. Muxu haundi bat.



Irungo **XUNE ZUBIALDE SUSPERREGI** 6 urte beteko ditu abuztuaren 27an. Zorionak Irungo eta Zubietako partetik. Zorionak Mari Motots!



AIMARREK 6 urte beteko ditu. Aunitz urtez Guatemala, Hendai, Bilbo eta Aurtizkoen partetik.



Doneztebeko **NEREA ARREGI ETXARTEK** 2 urte beteko ditu abuztuaren 19an. Zorionak eta muxu haundi bat familia osoaren partetik.



AINHOA LARRALDE KORTAK irailaren 3an 7 urte bete ditu. Zorionak familia guztiaren partetik eta bereziki bere anaia Asierren partetik.



OIER LARRETXEA AGIRREK 7 urte bete ditu abuztuaren 26an. Mila zorion etxeko artzain, pilotari, musikari, dantzari eta tarrantari handiari. Muxuak Potto



IKER GOIKOTXEA GOIA beratarrik abuztuaren 12an urtea beteko du. Zorionak eta muxu haundi bat gurasoen, aitonen eta osaben partetik.



Zozaiako **LOREA AGIRRE SARRATEAK** 3 urte bete ditu abuztuaren 15ean. Zorionak gure printzesitari eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Donamariako **EGUZKI** eta **ALAITZ IRIGOIEN JUANENA**. Abuztuaren 9an eta 27an 18 eta 6 urte bete dituzte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



AMETS LIZASO PIKABEAK 3 urte beteko ditu abuztuaren 31n. Zorionak guraso, izeba, Maxux eta familiaren partetik.

www.ttipi.net


AIMAR OTXOTEKOK 7 urte beteko ditu irailaren 12an. Zorionak familia guztiaren partetik. Muxu haundi bat eta ongi pasa.



Igantziako **IZAR IRIARTEK** irailaren 1ean 2 urte bete ditu. Ongi pasa zure egunian korrikalarai! Zorionak Berako eta Igantziako familiaren partetik. Bi muxu haundi haundi.



LEXURI AROTZENNA PORTU lesakarrak urtea beteko du irailaren 15ean. Aunitz urtez familia osoaren eta bereziki Orti anaia-aren partetik. Muxu haundi bat.



Zorionak **PRINTZESA!** Lehenbiziko urtea! Aunitz urtez Ttipi-ttapa lagun partetik.



Abuzturan 23an Zugarramurdiko **IOAN** eta **LOIK** bikxiek hiru urte bete zituzten. Zorionak, pullitak!



Bikoteak irailan ditunez urteak hartuak dituzue zahartzeko bideak Belen, Joxe nola ez zuen bikoteak zoriondu nahi dizkizue urtebetetzeak.



AIORA ITURRIA OTXANDORENA aranztarrak 3 urte beteko ditu irailaren 13an. Zorionak eta muxu haundi bat Iradi eta Maialenen partetik.



IBAI IRUNGARAI elizondarrak 6 urte beteko ditu irailaren 12an. Zorionak bihurri!!! Muxu haundi bat aitatxo eta amatxoren partetik.



IKER eta **SAIOA PETRIRENA** beratarrek irailaren 6an eta 25ean urte bat eta 3 urte beteko dituzte. Zorionak eta muxu pila bat gurasoen eta familia guztiaren partetik.



Zorionak **OIER!** Muxu haundi bat Iradi, Ibai, Ekiñe, June, Janire, Maialen, Oihan, Egoi, Eneit, Ekaitz, Xuban eta Aneren partetik.



Zorionak **OIER!** Irailaren 16an 3 urte beteko ditu. Muxu haundi bat Sunbillako familiaren partetik, atautxi, amatxi, osaba-izeba eta berexiki atxa eta amaren partetik.



Zorionak **JONE** eta **OIER!** Irailaren 3an eta 16an 3 urte beteko dituzte. Gerendiaingo familiaren partetik, atautxi, amatxi, osaba-izebak eta zuen gurasoen partetik muxu haundi bat. Ongi pasa eguna.



MIKEL INDABURU LOIDI etxalartarrak 6 urte beteko ditu irailaren 17an. Zorionak eta belarrian 6 tiraldi familiaren eta bereziki Eiderren partetik.



Mila kilo zorion bidali nahi dizkizute zure seigarren urtebetetzean. Zure lagun Aimar eta bere familiaren partetik.



SANTESTEBAN tailerrak

Kotxe ia berrietan eskaintza zabala (6-12 hilabeteko kotxeak):
Clio, Modus, Kangoo, Megane, Megane Grand Tour, Scenic,
Laguna, Laguna Grand Tour, Espace



Leitzako B. • DONEZTEBE • Tfnoa: 948450282 • 948 450 597



euskara ere urratsez urrats.
te ayudamos en cada paso.



BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA

- Lesakako Matxinbeltzenea ☎ 948 637796
- Berako Ricardo Baroja eskolan
astearte eta ortzegunez
18:00etatik 20:00etara ☎ 948 625019
- bortziriak@ikanet.net

MALERREKAKO EUSKALTEGIA

- Donezteben
Parrokia kaleko 1ean
☎ 948 451555
- malerreka@ikanet.net

LEITZALDEKO EUSKALTEGIA

- Leitzako Udaletxean
☎ 948 610776
- leitza@ikanet.net



www.ikanet.net

Matrikula zaitez
irailaren 28a baino lehen
apuntate al euskera
euskara ikasi!